

**EAEko SEKTORE PUBLIKOKO
ADMINISTRAZIOA ARINTZEKO ETA
SINPLIFIKATZEKO LEGEAREN
AURREPROIEKTUA****ANTEPROYECTO DE LEY DE
AGILIZACIÓN Y SIMPLIFICACIÓN
ADMINISTRATIVA DEL SECTOR
PÚBLICO VASCO****ZIOEN AZALPENA.****EXPOSICIÓN DE MOTIVOS.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoa aspalditik ari da hainbat jardueraildo lantzen, EAEko sektore publikoa prest egon dadin gizartearen aldaketa teknologikogero eta handiagoei aurre egiteko, kontuak emateko eta herritarrak botere publikoekin pozik egotea lortzeko.

Administrazio publikoak erne egon behar du une oro, administrazio-prozedurak arintzeko, desburokratizatzeko, modernizatzeko, sinplifikatzeko, normalizatzeko eta prozeduretako datuak trukatzeko, bai eta zerbitzuei laguntzeko eta Administrazioaren eta herritarren arteko lotura indartzeko ere.

Horretarako, ezinbestekoak dira eraldaketa digitala, barne-prozesuen berringeniaritza, eta erabakiak kudeaketarekin, emaitzekin, inpaktuekin eta entzute aktiboarekin lotutako ebidentzietan eta datuetan oinarrituta hartzea. Zerbitzu propioak sortzean eta diseinatzean, herritarren alderdia txertatu beharra daukagu: “barnekoa” kanporantz proiektatuko da, eta “kanpoko”, hau da, zerbitzu publikoen erabiltzaileen esperientzia, aintzakotzat hartu behar da zerbitzu publikoei buruz erabakitzean.

Administrazio hurbilagoa eta sinpleagoa lortzeko konpromisoa Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen xedeetako bat da. Izan ere, lege horrek ezartzen duenez, funtzionamenduaren eta herritarrekiko interakzioaren printzipioen harira, sektore publikoak soiltasuna eta ulergarritasuna

La Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi lleva tiempo abordando líneas de actuación encaminadas a preparar al sector público vasco ante el cada vez mayor cambio tecnológico de la sociedad, la rendición de cuentas y el objetivo de una ciudadanía satisfecha con los poderes públicos.

La Administración pública debe estar permanentemente alerta en agilizar, desburocratizar, modernizar, simplificar, normalizar e intercambiar datos en los procedimientos administrativos, soporte de los servicios y enlace entre ella y la ciudadanía.

Para ello, es esencial la transformación digital, la reingeniería de los procesos internos y la adopción de decisiones basada en evidencias y datos (de gestión, resultados e impactos y de la escucha activa). Debemos incorporar esta dimensión ciudadana en la creación y el diseño de los propios servicios: “Lo de dentro” se proyecta hacia afuera y “lo de fuera”, la experiencia de las personas usuarias de los servicios públicos debe considerarse en las decisiones sobre los servicios públicos.

El compromiso de una administración más cercana y sencilla es objeto de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco, que incluye, entre los principios de funcionamiento e interacción con la ciudadanía, la simplicidad y comprensibilidad, señalando que se reducirá la complejidad

aplikatuko ditu; alegia, izapideen konplexutasuna gutxituko du, eta arau eta prozedura argi eta errazak edukitzeko bidea emango du herritar guztiak Administrazioa iristea ahalbidetzen duen hizkera ulergarria erabiliz. Lege horrek, halaber, administrazio elektronikoaren printzipioen artean jasotzen du sinplifikazioarena, zeinaren arabera, bitarteko elektronikoak aplikatzean, Administrazio publikoaren izapideak eta prozedurak sinpleak izango baitira. Hain zuzen ere, Legearen 64. artikulua xedatzen duenez, sinplifikazio hori herritarren eskubide bat da, eta, orobat, herritarren eskubidea da prozedurei aplikatu beharreko arauetan exijitzen ez diren dokumentuak edo dagoeneko Administrazio publikoaren eskuetan daudenak ez aurkeztea; hala onartzen du, gainera, Estatuko oinarrizko legediak.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eremuan herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko 91/2023 Dekretuak Administrazioa sinplifikatzeari eta arintzeari buruzko zenbait alderdi arautzen ditu; hain justu, zerbitzu eta prozeduren digitalizazioarekin eta administrazio elektronikoaren garapenarekin zerikusia dutenak.

Edonola ere, nahitaezkoa da lanean jarraitzea, herritarrek erdigunean jarrita, Administrazio hurbilago, sinpleago, efikazago eta efizienteagoaren aldeko konpromisoan sakontzeko jarduera-ildoei heltzeko. Horiek horrela, lege honek 3/2022 Legea osatuko du, prozesuekin, prozedurekin eta tresnekin lotutako alderdiak bideratuko baititu, arrazionalagoak, arinagoak eta administrazioaren aldetik sinpleagoak izan daitezen eta karga, ahalegin eta kostu gutxiago eragin ditzaten.

Funtsean, Administrazio publikoaren desburokratizazioa lantzeko beste ekimen bat da lege hau, eta pertsona orori egokiturik, efizientziaz eta arintasunez jarduteko mekanismo berriak aztertzen ditu. Izan ere, funtsezko urratsa da hori, eskura

de los trámites y propiciará la existencia de normas y procedimientos claros y sencillos por medio de un lenguaje comprensible que haga universal la accesibilidad de la ciudadanía. Así mismo, incluye entre los principios de la administración electrónica el de simplificación de los trámites y procedimientos de la Administración pública con ocasión de la aplicación de medios electrónicos, simplificación que se reconoce en su artículo 64 como un derecho la ciudadanía, junto al derecho de no presentar los documentos no exigidos por las normas aplicables a los procedimientos o que se hallen ya en poder de la Administración pública, derecho igualmente reconocido en la legislación básica estatal.

El Decreto de 91/2023 de atención integral y multicanal a la ciudadanía y acceso a los servicios públicos por medios electrónicos en el ámbito del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi regula algunos aspectos sobre la simplificación y agilización administrativa en relación con la digitalización de los servicios y procedimientos y el desarrollo de la Administración electrónica.

No obstante, es necesario continuar abordando líneas de actuación encaminadas a profundizar en el compromiso de una administración más cercana, sencilla, eficaz y eficiente, poniendo a la ciudadanía en centro; por lo que, la presente Ley viene a completar a la Ley 3/2022, orientando aspectos de proceso, procedimentales e instrumentales hacia la racionalización, agilización y simplificación administrativa y la reducción de cargas, esfuerzos y costes dedicados a las mismas.

Constituye una nueva iniciativa para abordar la desburocratización de la Administración pública, explorando nuevos mecanismos para operar de manera eficiente, ágil y adaptada a todo tipo de personas, un pilar fundamental

dauden kanalen bidez herritarrei ematen zaien arreta hobetzeko eta Euskadin bizi diren pertsonen eguneroko bizitza errazteko.

para, en definitiva, mejorar la atención a la ciudadanía en todos los canales disponibles y facilitar el día a día de las personas que viven en Euskadi.

Gainera, lege hau esparru juridiko propioa izateko beste aurrerapauso bat da: esparru juridiko propioa, oro har, gobernantza publikoaren arloari dagokionez, eta, bereziki, administrazio digitalari eta herritarrentzako arretari dagokionez, azken batean, gai horiei herrialde-ikuspegitik heltzeko eta Euskadi Europan kokatzeko. Arau honek bere egiten ditu Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) gobernu digitalerako arau-esparruan jasotako sei ezaugarriak (Digital Government Policy Framework – DGPF): digitala diseinutik bertatik; datuetan oinarritutako sektore publikoa; gobernua plataforma gisa; berez irekia; erabiltzaileengan zentratua, eta proaktiboa.

Supone un nuevo paso en el marco jurídico propio en materias de gobernanza pública en general y de administración digital y atención a la ciudadanía con visión de País y sitúa a Euskadi en estas materias en el contexto europeo. La norma hace suyas las seis dimensiones del Marco normativo para el gobierno digital (Digital Government Policy Framework- DGPF) de la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico-OCDE: digital desde el diseño, sector público basado en datos, gobierno como plataforma, abierto por defecto, centrado en las personas usuarias y proactivo.

Lege honen asmoa da herritarrek erdigunean jarrita kudeatzea zerbitzu publikoak, bi begirada uztartuta.

La Ley persigue la orientación a la ciudadanía de la gestión de los servicios públicos desde una doble perspectiva:

Batetik, kanporako begirada, hau da, herritar guztiei begira jardutea (pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta enpresak); horrek esan nahi du administrazio publikoekin izango dituzten harremanak errazagoak izango direla eta, beraz, ahalegin txikiagoa egin beharko dutela Administrazioarekin erlazionatzeko.

Por un lado, hacia afuera, hacia la ciudadanía en el amplio sentido (personas físicas y personas jurídicas, incluyendo las empresas) facilitando su relación con las Administración pública, de forma que tenga que hacer un menor esfuerzo para relacionarse con la administración.

EAEko sektore publikoarentzat lehentasunezkoa izan behar du zerbitzu digital erabilerrazak eta irisgarriak izatea, pertsonen kanal elektronikoaren bidez EAEko administrazio publikoekin dituzten harremanak errazak, intuitiboak, eraginkorrak, efizienteak eta ez-diskriminatzaileak izan daitezen.

Debe constituir una prioridad en el sector público vasco disponer de servicios digitales accesibles y fácilmente utilizables, de modo que se pueda conseguir que la relación de las personas con las Administraciones públicas vascas a través del canal electrónico sea fácil, intuitiva, efectiva, eficiente y no discriminatoria.

Nolanahi ere, aurrez aurreko arreta beti bermatuko da, ezertan galarazi gabe pertsona fisikoek Administrazioarekin harremanak izateko zer kanal erabili nahi duten aukeratzeko duten eskubidea. Horrenbestez, xedapen orokor honek gaur egun eskura dauden kanal guztiak aintzat

Todo ello garantizando, en todo momento, la atención presencial y sin perjuicio del derecho de las personas físicas elegir el canal de relación con la Administración. Por lo cual esta disposición de carácter general contempla todos los canales actualmente



hartzen ditu, eta haien etengabeko bilakaera-, berrikuntza- eta hobekuntza-prozesua aurreikusten du, ez bakarrik etorkizuneko aldaketa sozial eta teknologikoetara egokitzeko, baizik eta, modu proaktiboan, zerbitzu pertsonalizatuak, autozerbitzurako espazio publikoak, Europako barne-merkatuko zerbitzu-leihatila bakarra eta beste hainbat eskaintzeko.

Bestetik, barrurako begirada ere lantzen du lege honek; alegia, enplegatu publikoak eta barne-prozesuak kontuan hartzen ditu, zerbitzua denbora eta ahalegin gutxiago erabiliz eman ahal izateko.

II

Legearen atariko tituluaren I. kapituluaren xedapen orokorrak jasotzen dira, bai eta legearen xedea, helburua eta aplikazio-eremua ere.

II. kapituluaren, berriz, indarrean dauden zenbait legetan jasotako printzipioei gai hauekin zerikusia duten beste batzuk eranstean zaizkie: herritarrentzako arreta; Administrazio publikoaren presentzia ingurune birtualetan; zerbitzu publikoak eta administrazio digitala, eta araugintza-kalitatea eta erregulazio ona.

III. kapituluak gauza bera egiten du herritarren eskubide eta eginbeharrei dagokienez, eta IV. kapituluaren administrazio publikoek nahitaez bete behar dituzten zenbait gai ezartzen dira; horien artean, bada bat bereziki garrantzitsua, xedatzen duena ezen agintari, kargudun publiko eta enplegatu publiko guztiek herritarrei arreta emateko eginbehar orokorra dutela, kasu bakoitzari dagokion maila, modalitatea eta kanala erabiltzea.

Lege honen ondorioetarako, herritar gisa hartzen dira pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko enteak, aurreko apartatuetan adierazitako entitateekin dituzten harremanetan; hau da, kontzeptua zabala da, eta zerbitzu

existentes y prevé el permanente proceso de evolución, innovación y mejora, de forma que no solo se adapte a los futuros cambios sociales y tecnológicos, sino que, de forma proactiva, ofrezca servicios personalizados, espacios públicos de autoservicio, ventanilla única para los servicios en el mercado interior europeo, etc.

Por otro, hacia adentro: el personal empleado público y los procesos internos de forma que se reduzca el esfuerzo y tiempo para la prestación del servicio.

II

El título preliminar de la Ley contiene en su capítulo I las disposiciones generales de la misma y señala su objeto y finalidad, además de su ámbito de aplicación.

A continuación, el capítulo II completa al resto principios de otra legislación vigente en relación con la atención a la ciudadanía, presencia de la Administración pública en entornos virtuales, los servicios públicos y la Administración digital, así como en relación con la calidad normativa y buena regulación.

El capítulo III hace lo mismo respecto a los derechos y deberes de la ciudadanía y, el capítulo IV establece algunas cuestiones de obligado cumplimiento en la Administración pública, siendo especialmente relevante el deber general de atención a la ciudadanía de todas las autoridades, cargos públicos y personal empleado público, en el nivel, modalidad y canal que corresponda en cada caso.

Cabe aclarar que a los efectos de la Ley se entiende por ciudadanía a las personas físicas, jurídicas y entes sin personalidad jurídica en sus relaciones con las entidades incluidas en los apartados anteriores; es decir, un

publikoaren hartzaile posible guztiak barne hartzen ditu.

concepto amplio que incluye a todo posible destinatario del servicio público

V. kapituluak, garrantzi berezia duten bi gai daude: batetik, zabaldu egiten da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera Administrazioarekin harremanak modu elektronikoa izatera behartuta dauden kasuistika, eta, bestetik, tresna bat aurreikusten da, zerbitzu publikoen erabiltzaileek edonoz adierazi ahal izan dezaten zer datu eta zer kanal baliatu nahi dituzten Administrazioarekin harremanak izateko.

En el capítulo V son especialmente relevantes, por un lado, la ampliación de los supuestos de relación electrónica obligada con la Administración establecidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y, por otro, la previsión de un instrumento mediante el cual las personas usuarias de los servicios públicos podrán en todo momento señalar sus datos de contacto y relación con la Administración y la elección del canal

Lehenengo gaiari dagokionez, hau da, Administrazioarekin harremanak kanal elektronikoa erabiliz izateko betebeharrari dagokionez, lege honek oinarritzko legedian jasota dauden kasuak zabaltzen ditu; horrenbestez, Estatuko arauak berak ezartzen duenari jarraituz, xedatzen du betebeharrari hori izango dutela pertsona fisikoek multzo batzuek, gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik egiaztaturik badago behar diren bitarteko elektronikoetarako irispidea eta eskuragarritasuna badutela.

Respecto al primer aspecto, la obligación del uso del canal electrónico para relacionarse con la Administración, la Ley amplía los supuestos de la legislación básica a colectivos de personas físicas que, por razón de su capacidad económica, técnica, dedicación profesional u otros motivos queda acreditado que tienen acceso y disponibilidad de los medios electrónicos necesarios, tal y como establece la propia norma estatal.

Horrek prozedurak sinplifikatzen lagunduko du, eta, horrenbestez, izapideak arinagoak izango dira, eta prozedurak irigarriagoak, zeren eta kudeaketa-lanak edonoz eta edonondik egin ahal izango baitira.

Ello contribuirá a la simplificación de los procedimientos lo cual conllevará una mayor agilización en la tramitación y accesibilidad a los mismos, que podrán realizar las gestiones necesarias desde cualquier hora y lugar.

I. tituluak, herritarrak erdigunean jarrita arreta integrala eta multikanala emango duten administrazio publikoek bete behar dituzten funtsezko elementu eta alderdi batzuk arautzen dira, hala nola leihatila bakarra, kudeaketa bateratuko zentroak, Administrazioarekin harremanak izateko gune pertsonalizatua, ahalordeen erregistro elektronikoa, eta dokumentuak erregistratzeko entitate laguntzaileak.

El título I regula algunos elementos y aspectos esenciales de una Administración pública centrada en la ciudadanía, y la atención integral y multicanal a la misma, como son la ventanilla única, los centros de gestión unificada, el espacio personalizado de relación con la Administración, el registro electrónico de apoderamientos y las entidades colaboradoras de registro de documentos.

II. tituluak Administrazioa sinplifikatzearekin zerikusia duten alderdi guztiak arautzen ditu.

El título II regula todos los aspectos concernidos con la simplificación administrativa.

Batetik, I. kapituluak, arlo horri buruzko xedapen orokorrak jasotzen dira: Administrazioa sinplifikatzeko eginbehar orokorra; sinplifikatze-lanaren sustapena eta bultzada, eta Administrazioa sinplifikatzearen zikloa –alegia, programazioa, jarraipena eta ebaluazioa– gardentasunez eta herritarren parte-hartzearekin osatzeko beharra. Kapitulu horretan bertan, Administrazioa sinplifikatzeko ezar daitezkeen neurri motak zehazten dira, eta horietako bakoitza ondorengo kapituluetan arautzen da xehe-xehe; arauak sinplifikatzeko neurriak, aldiz, azken xedapen baten bidez erregulatzen dira.

Por un lado, el capítulo I incluye las disposiciones generales sobre la misma: el deber general de simplificación administrativa, su promoción, fomento e impulso, así como el ciclo de programación, seguimiento y evaluación de la simplificación administrativa, de forma transparente y con participación de la propia ciudadanía en la misma. Este mismo capítulo establece los tipos de medidas de simplificación administrativa, cada una de las cuales tiene su regulación pormenorizada en los siguientes capítulos y, en el caso de las medidas de simplificación normativa en una disposición final.

Bestetik, II. kapituluak administrazio-kargen murrizketa arautzen du; III. kapituluak Administrazioa sinplifikatzeko barne-neurriak arautzen ditu, eta IV. kapituluak, berriz, administrazio-prozedura arintzeko eta arrazionalizatzeko neurriak.

De esta forma, el capítulo II se centra en la regulación de la reducción de cargas administrativas, el capítulo III tiene por objeto la regulación de las medidas internas de simplificación administrativa y el capítulo IV la regulación de las medidas de agilización y racionalización del procedimiento administrativo.

Azkenik, II. tituluaren V. kapituluak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoan administrazioa sinplifikatzeko lanaren gobernantzarekin zerikusia duten xedapenak biltzen ditu, eta ezartzen du zer organok arduratu behar duten araututako neurriez.

Por último, en el capítulo V del título II recoge las disposiciones en relación con la gobernanza de la simplificación administrativa en la Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, estableciendo los órganos responsables de las diferentes medidas reguladas.

III. titulua zehapen-araubideari buruzkoa da: I. kapituluak, erantzukizunpeko adierazpenei eta aurretiazko komunikazioei aplikatuko zaien araubidea erregulatzen da, eta II. kapituluak, lege honetan bertan arautzen diren ziurtapen-entitate laguntzaileei aplikatuko zaiena.

El título III regula el régimen sancionador, por un lado, en relación con las declaraciones responsables y las comunicaciones previas en el capítulo I y, en el capítulo II en relación con las entidades colaboradoras de certificación reguladas previamente por la presente Ley.

Legeak, bestalde, sei xedapen gehigarri ditu, zeinen bidez sinplifikatze-neurri jakin batzuen epeak ezartzen baitira; azken xedapenak ere baditu, xedapen arauemaile

La Ley incluye seis disposiciones adicionales con mandatos de plazos en relación con algunas medidas de simplificación para, posteriormente, en

orokor hauek aldatzeko: 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena; 6/2022 Legea, ekainaren 30koa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena; 91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, Herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa; eta beste xedapen orokor batzuk, hala nola Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzkoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialari buruzkoa.

las disposiciones finales proceder a la modificación de determinadas disposiciones normativas de carácter general: Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco; Ley 6/2022, de 30 de junio, del procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general; Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi; Decreto 91/2023, de 20 de junio, de atención integral y multicanal a la ciudadanía y acceso a los servicios públicos por medios electrónicos, y varias disposiciones generales sobre el Boletín Oficial del País Vasco y el Servicio Oficial de Traductores de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA.- XEDEA, HELBURUA ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua. Xedea

Lege honen xedea da zerbitzu digitalak eta herritarrentzako arreta bideratzea, herritarrak ardatz hartuta eta zeharkako ikuspegi integrala eta multikanala baliatuta; orobat, legearen xedea da Administrazioa sinplifikatzeko eta prozedurak arintzeko arauak ezartzea.

2. artikulua. Helburuak

Ondorio horietarako, hauek dira lege honen helburuak:

a) Gai hauek gidatzeko printzipio orokorrak ezartzea: herritarrentzako arreta, administrazio publiko digitala eta haren presentzia ingurune birtualetan, eta Administrazioa sinplifikatzea.

b) EAEko sektore publikoarekiko harremanetan herritarrek zer eskubide eta eginbehar dituzten ezartzea; hots, eskubideak balia ditzaketela bermatzea, eta betebeharrak betetzen laguntzea.

TÍTULO PRELIMINAR. DISPOSICIONES GENERALES

CAPÍTULO I. OBJETO, FINALIDAD Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

Artículo 1. Objeto

La presente ley tiene por objeto orientar los servicios digitales y la atención a la ciudadanía con una visión centrada en ésta, de forma transversal, integral, y multicanal; así como regular la simplificación administrativa y la agilización de los procedimientos.

Artículo 2. Fines

A tal efecto, la ley persigue los siguientes fines:

a) Establecer los principios generales de la atención a la ciudadanía, de la administración pública digital y su presencia en los entornos virtuales, así como de la simplificación administrativa.

b) Establecer los derechos y deberes de la ciudadanía en sus relaciones con el sector público vasco, garantizar el ejercicio de los primeros y facilitar el cumplimiento de los segundos.

- | | |
|---|---|
| <p>c) <u>Kanalaren</u> aukeraketa arautzea, eta, zenbait kasutan, administrazio publikoekiko harremanak kanal digitalaren bidez izateko betebeharra arautzea.</p> <p>d) Herritarrak erdigunean jarrita <u>arreta</u> integrala eta multikanala emango duten administrazio publikoen funtsezko alderdiak arautzea.</p> <p>e) <u>Administrazioa sinplifikatzeko lanaren gobernantzaren oinarriak</u> eta EAEko sektore publikoaren lankidetzak eta koordinazioa ezartzea, gardentasunez eta herritarren parte-hartzearekin.</p> <p>f) <u>Administrazioa sinplifikatzeko</u> betebeharra ezartzea EAEko sektore publikoan, prozesuak eta prozedurak arinak, sinpleak, errazak, efikazak eta efizienteak izan daitezzen; halaber, sinplifikatze-lan horren programazioa, jarraipena eta ebaluazioa ezartzea.</p> <p>g) Administrazioa sinplifikatzeko <u>neurri</u> motak arautzea.</p> <p>h) <u>Ziurtapen-entitate laguntzaileen</u> araubidea erregulatzea, egiaztapenak, txostenak eta ziurtagiriak egiteko eginkizunak bete ahal izan ditzaten, eta ezartzea nolakoak izango diren halako entitateen jarduerak, zer eginkizun, betebeharrak eta erantzukizunak izango dituzten, eta zer akreditazio- eta erregistro-sistema erabiliko duten.</p> <p>i) Ziurtapen-entitate laguntzaileen zehapen-araubidea erregulatzea.</p> | <p>c) Regular la elección del <u>canal</u> y, en determinados casos, la obligación del canal digital en la relación con las Administraciones públicas.</p> <p>d) Regular los elementos esenciales de una Administración pública centrada en la ciudadanía, y la <u>atención</u> integral y multicanal a la misma</p> <p>e) Establecer las bases de la <u>gobernanza de la simplificación administrativa</u> y la cooperación y coordinación del sector público vasco, de forma transparente y con la participación de la ciudadanía.</p> <p>f) Establecer la obligación de la <u>simplificación administrativa</u> en el sector público vasco para lograr procesos y procedimientos ágiles, sencillos, fáciles, eficaces y eficientes; y la programación, seguimiento y evaluación de dicha simplificación.</p> <p>g) Regular los distintos tipos de <u>medidas</u> de simplificación administrativa.</p> <p>h) Regular el régimen de las <u>entidades colaboradoras de certificación</u> que les permita ejercer funciones de comprobación, informe y certificación, estableciendo el carácter de su actividad, sus funciones, obligaciones y responsabilidades, así como su sistema de acreditación y registro.</p> <p>i) Regular el régimen sancionador de las entidades colaboradoras de certificación.</p> |
|---|---|

3. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan aplikatuko da, eta euskal sektore publikoko beste subjektu batzuetara hedatuko da, lehenengo xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan eta bakoitzaren erakunde-araudiaren arabera.

Artículo 3. Ámbito de aplicación

1. La presente Ley es de aplicación al sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, extendiéndose a otros sujetos del sector público vasco en los términos fijados por la disposición adicional primera y de acuerdo con su respectiva normativa institucional propia.

2. Antolamendu-aurreikuspenak honako hauei aplikatuko zaizkie, kasuan-kasuan xedatzen den moduan:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko, sozietate publiko, fundazio eta partzuergoei.

c) Aurreko letretan aipaturikoen zuzeneko edo zeharkako partaidetza nagusia duten enteei, sozietateei eta pertsona juridikoei.

d) Gainerako entitate publikoei, hala xedaturik egonez gero haiek sortzeko arauan edo lege honetan bertan.

4. artikulua. Definizioak.

Lege honen ondorioetarako, honela ulertzen dira hauek:

Administrazio-jarduketa automatizatua: Administrazio publikoak administrazio-prozedura baten barruan bitarteko elektronikoen bidez osorik egiten duen jarduketa –baita adimen artifizialeko tekniken eta tresnen bidez egiten duena ere–, enplegatu publikoen zuzeneko esku-hartzerik gabea; gerta daitezkeen atzerapen bakarrak jarduketaren euskarri diren plataforma edo sistemen eskuragarritasunaren eta jarraitutasunaren ondoriozkoak dira. Horrek ez du kentzen, hala ere, enplegatu publikoek prozesua ikuskatu eta kontrolatu beharra.

Herritarrentzako arreta: EAEko sektore publikoak antolatzen dituen prozesu eta bitartekoen multzoa, herritarrek izan dezaten eskubideak baliatu, betebeharrak bete eta zerbitzu publikoak irispidean izateko aukera emango dien harremangune eraikitzaile bat. Zehazki, herritarrentzako arretaren barruan hauek sartzen dira: harrera eta orientazioa; administrazio-informazioa; dokumentuak

2. Las previsiones estrictamente organizativas son aplicables, en la forma que en cada caso se disponga, a:

a) La Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

b) Los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado, sociedades públicas, y fundaciones y consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

c) Los entes, sociedades y personas jurídicas participadas mayoritariamente, ya sea de manera directa o indirecta, por las anteriores.

d) Aquellas otras entidades de naturaleza pública en que así lo disponga su norma de creación o esta misma ley.

Artículo 4. Definiciones.

A efectos de esta ley se entiende por:

Actuación administrativa automatizada: actuación realizada íntegramente a través de medios electrónicos, incluido el uso de técnicas y herramientas de inteligencia artificial, por la Administración pública en el marco de un procedimiento administrativo y en la que no interviene de forma directa una persona empleada pública, sin otras dilaciones que las que, en su caso, pudieran derivarse de la disponibilidad y continuidad de las plataformas o sistemas que lo soporten, todo ello sin perjuicio de la necesaria supervisión y control del proceso por el personal empleado público.

Atención a la ciudadanía: el conjunto de procesos y medios que el sector público vasco organiza para crear un espacio constructivo de relaciones que permitan a la ciudadanía el ejercicio de sus derechos, el cumplimiento de sus obligaciones y el acceso a los servicios públicos. En concreto, la atención a la ciudadanía comprende el recibimiento y

bete, jaso eta erregistratzea; herritarrei eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko laguntza eta orientazioa ematea, eta kexak eta iradokizunak kudeatzea.

orientación, la información administrativa, la cumplimentación, recepción y registro de documentos, la asistencia y orientación en el ejercicio de sus derechos y cumplimiento de sus obligaciones y la gestión de quejas y sugerencias.

Baimena edo lizentzia: agintaritza eskudunaren berariazko edo presuntziozko edozein administrazio-egintza, eskubide bat aitortu edo baliatu aurretik edo jarduera bat hasi eta garatu aurretik exijitzen dena.

Autorización o licencia: Cualquier acto administrativo expreso o presunto de la autoridad competente que se exija, con carácter previo, para el reconocimiento o ejercicio de un derecho, o bien el inicio y desarrollo de una actividad.

Administrazio-karga: Administrazio-izaerako jarduera oro, baldin eta interesdunak bere gain hartu behar duen kostu bat bada, araudiaren ondorioz administrazio publikoari informazioa emateko betebeharra betetzeko soilik, eta araurik ezean gauzatuko ez litzatekeen administrazio-lan bat badakar berekin.

Carga administrativa: Toda actividad de naturaleza administrativa que supone un coste que la persona interesada ha de asumir sólo para cumplir una obligación de información a la Administración pública derivada de la normativa y que implica una tarea administrativa que no llevaría a cabo en ausencia de la norma.

Dokumentu-egiaztapenaren ziurtagiria: lege honen II. tituluko II. kapituluan, garapeneko erregelamendu-arauetan eta aplikatzeko den araudi sektorial espezifikoan ezarritakoaren arabera akreditatuta dagoen ziurtapen-entitate laguntzaile batek interesdunak eskaturik egindako dokumentua, nork bere borondatez aurkez dezakeena.

Certificación Documental Acreditada: El documento de aportación voluntaria emitido a instancia de la persona interesada por una entidad colaboradora de certificación acreditada de acuerdo con lo establecido en el capítulo II del título II de esta Ley, las normas reglamentarias de desarrollo y la normativa sectorial específica de aplicación.

Herritarrak: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko entitateak, lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren entitateekin dituzten harremanetan.

Ciudadanía: personas físicas, jurídicas y entidades sin personalidad jurídica en sus relaciones con las entidades incluidas en el ámbito de aplicación de esta Ley.

Aurretiazko komunikazioa: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.2 artikuluaaren arabera, aurretiazko komunikazioa da dokumentu bat zeinaren bitartez interesdunek Administrazio publikoari jakinarazten baitizkiote beren identifikazio-datuak edo jarduera bat hasteko edo eskubide bat baliatzeko esanguratsua den beste edozein datu.

Comunicación previa: Tal y como señala el artículo 69.2. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, documento mediante el que la persona interesada pone en conocimiento de la Administración pública sus datos identificativos o cualquier otro dato relevante para el inicio de una actividad o el ejercicio de un derecho.

Aurretiazko komunikazioarekin batera, hala badagokio, beharrezkoak diren dokumentu guztiak aurkeztu ahal izango dira, dagokion araudian ezarritakoaren arabera.

La comunicación previa podrá ir acompañada, en su caso, de cuantos documentos sean necesarios, de acuerdo con lo establecido en la normativa correspondiente.

Erantzukizunpeko adierazpena:

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.1 artikuluaaren arabera, erantzukizunpeko adierazpena da interesdunak sinatutako dokumentu bat zeinean adierazten baitu, bere erantzukizunaren pean, betetzen dituela indarrean den araudiak eskubide edo ahalmen bat aitortzeko edo hura baliatzeko ezarritako betekizunak, baduela hori egiaztatzen duen dokumentazioa, Administrazioaren esku jarriko duela hark hala eskatzen dionean, eta konpromisoa hartzen duela betebeharroriek betetzeko aitortpen edo baliatze horri dagokion denbora guztian. Betekizunek espresuki jasota egon behar dute, argi eta zehatz, erantzukizunpeko adierazpenean bertan.

Declaración responsable:

Tal y como señala el artículo 69.1. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, documento suscrito por la persona interesada, en el que manifiesta, bajo su responsabilidad, que cumple con los requisitos establecidos en la normativa vigente para obtener el reconocimiento de un derecho o facultad o para su ejercicio, que dispone de la documentación que así lo acredita, que la pondrá a disposición de la Administración cuando le sea requerida, y que se compromete a mantener el cumplimiento de las obligaciones durante el período de tiempo inherente a dicho reconocimiento o ejercicio. Los requisitos deberán estar recogidos de manera expresa, clara y precisa en la propia declaración responsable.

Enpresak: edozein bolumen edo izaera juridiko duten enpresa pribatuak; enpresa-edo lanbide-jarduera bat hasten duten ekintzaileak, eta trafiko ekonomikoan ondorioak eragingo dituzten jarduerak gauzatzen dituzten bestelako entitateak (irabazi-asmorik gabeko elkarteak, fundazioak, etab.).

Empresas, tanto las empresas privadas de cualquier volumen o naturaleza jurídica como los emprendedores que inician su actividad empresarial o profesional y cualquier otra entidad cuyas actividades surtan algún efecto en el tráfico económico (asociaciones sin ánimo de lucro, fundaciones, etc.).

Ziurtapen-entitate laguntzailea:

Ziurtapen Entitate Laguntzaileen Erregistro Orokorrean behar bezala akreditatuta eta inskribatuta dagoen pertsona juridikoa, dagokion jarduera-eremuan egiaztapenak, txostenak eta ziurtagiriak egiteko eginkizunak betetzen dituen eta dokumentu-egiaztapenaren ziurtagiriak egiteko akreditatuta dagoena lege honen II. tituluko II. kapituluaren, garapeneko erregelamendu-arauen eta aplikatzekoa den araudi sektorial espezifikoaren arabera.

Entidad colaboradora de certificación:

Persona jurídicas que, que, debidamente acreditada e inscrita en el Registro General de Entidades Colaboradoras de Certificación, ejerza funciones de comprobación, informe y certificación en el ámbito de su actividad y estén acreditadas para emitir certificados de verificación documental de acuerdo con lo establecido en capítulo II del Título II de esta Ley, las normas reglamentarias de desarrollo y la normativa sectorial específica de aplicación.

Administrazio-espeditentea: dokumentu eta jarduketan multzo ordenatua da, administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri izateko balio duena eta hura betearazteko eginbideak ere jasotzen dituena, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 70. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legeak 3.f) artikuluan ezarritakoarekin.

Expediente administrativo: de acuerdo con lo establecido en el artículo 70 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en el 3.f) de la Ley 5/2022, de 23 de junio, de gestión documental integral y patrimonio documental de la Comunidad Autónoma del País Vasco, conjunto ordenado de documentos y actuaciones que sirven de antecedente y fundamento a la resolución administrativa, así como las diligencias encaminadas a ejecutarla.

Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria: arau-proiektuei erantsitako informazioa jaso eta biltzen duen dokumentua da, zeinak Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikuluan ezarritako edukia izango baitu.

Memoria de análisis del impacto normativo: documento en el que se recoge y unifica la información que acompaña a un proyecto normativo, con el contenido establecido en el apartado 3 del artículo 15 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general.

Dokumentuak eta formularioak normalizatzea: oro har administrazio-prozedurei lotuta dauden dokumentu mota guztiek eta bereziki formularioek bete beharreko diseinu-, formatu-, eduki- eta funtzionaltasun-ezaugarriak homogeneizatzea, edozein dela ere dokumentu horiek aurkezteko erabili den kanala.

Normalización de documentos y formularios: homogenización del diseño, formato, contenido y funcionalidades que debe cumplir todo tipo de documento asociado a un procedimiento administrativo en general, y los formularios en particular, independientemente del canal utilizado para su presentación.

Prozedura: zerbitzua edo haren zati bat ematean bete behar den prozesua, zeina administrazio-egintza bat emateko edo Administrazioaren borondatea adierazteko formalki egiten diren izapideen eta jarduketan multzo ordenatua baita.

Procedimiento: Proceso que se ha de seguir en la prestación del servicio o de una parte de este y que se constituye como un conjunto ordenado de trámites y actuaciones formalmente realizadas para dictar un acto administrativo o expresar la voluntad de la Administración.

Prozesua: jardueren sekuentzia ordenatua, elkarri lotutako administrazio-prozeduretako izapideak barnean direla, beharrezkoak direnak herritarrei erantzuteko edo zerbitzua emateko, herritarrek zerbitzu edo prestazioen bezero, erabiltzaile edo onuradun diren aldetik.

Proceso: secuencia ordenada de actividades, incluidos los trámites de los procedimientos administrativos, interrelacionadas entre sí, necesarias para dar respuesta o prestar servicio a la ciudadanía, como cliente, usuaria o beneficiaria de servicios o prestaciones.

Administrazioa arrazionalizatzea: lana antolatzea halako moduan, non errendimendua handitu edo kostuak

Racionalización administrativa: Organización del trabajo de manera que aumente el rendimiento o reduzca los

murritzuko diren, ahalegin txikiena eginda, eta administrazio-prozedura denbora-, kostu- eta arau-irizpide arrazoizko baten arabera ordenatzea; hau da, prozedura ahalik eta arinena eta ekonomikoa izatea, bai eta zuzenbidearen arabera ere.

Administrazio-kargak murriztea: Administrazioa sinplifikatzeko neurriak, zeinen helburua baita interesdunak, Administrazio publikoa informatzeko betebeharrak betetzeko soilik, bere gain hartu behar dituen administrazio-kostuak murriztea; betebeharrak horrek administrazio-ataza bat dakar berekin, zeina ez bailuke egingo araurik egon ezean.

Zerbitzu proaktiboa eta pertsonalizatua: administrazio publikoek eskaintzen duten zerbitzu digital aurreikusgarria eta alde aurrekoa, eskabide formalik aurkeztea eskatzen ez duena eta hartzailearen inguruabar bereziak kontuan hartzen dituen.

Administrazioa sinplifikatzea: administrazio publikoen jardura eta pertsonen administrazioekin harremanak izateko modua sinplifikatzeko eta errazteko helburua duen jardura oro: prozeduren araudia hobetzea (araugintza-kalitatea eta administrazio-kargen murrizketa), barne-neurriak eta prozesuen berringeniarritza, eta prozedurak arintzea eta arrazionalizatzea, faseak, izapideak, betekizunak eta dokumentuak ezabatuz, gutxituz eta trinkotuz, aldiak eta epeak nabarmen murrizteko eta zerbitzuak arinago emateko (joan-etorriak saihestea eta denbora eta kostuak aurrezteak) eta administrazio-jardura efikazagoa eta efizienteagoa izateko, interesdunen eskubideak eta bermeak inola ere murriztu gabe. Hiru dira Administrazioa sinplifikatzeko oinarriak: antolamendua, prozedurak eta araudia.

Adimen artifizialeko sistema: makinetan oinarritutako sistema, autonomia-maila batekin baino gehiagorekin funtzionatzeko

costes con el mínimo esfuerzo, ordenar el procedimiento administrativo conforme a un criterio razonable de tiempo, de coste y de la norma; es decir, que sea lo más ágil posible, lo más económico y lo más ajustado a derecho.

Reducción de cargas administrativas: medidas de simplificación administrativa dirigidas a reducir los costes administrativos que la persona interesada ha de asumir sólo para cumplir una obligación de información a la Administración pública y que implica una tarea administrativa que no llevaría a cabo en ausencia de la norma.

Servicio proactivo y personalizado: servicio digital que se ofrece por las Administraciones Públicas de manera predictiva y anticipada sin necesidad de presentar una solicitud formal y teniendo en cuenta las circunstancias particulares de la persona a la que se dirige.

Simplificación administrativa: Toda actuación dirigida a hacer más sencilla y más fácil la actividad de las Administraciones públicas y la forma de interactuar de las personas con éstas: mejora regulatoria de los procedimientos (calidad normativa y reducción de cargas administrativas), medidas internas y reingeniería de procesos, y agilización y racionalización del procedimiento que elimine, reduzca y compacte fases, trámites, requisitos y documentos de este para reducir de manera sustancial los tiempos y plazos y ganar agilidad en la prestación de los servicios (evitar desplazamientos, economizar tiempo y ahorrar costes) así como lograr una mayor eficacia y eficiencia en la actividad administrativa sin merma, en ningún caso, de los derechos y las garantías de las personas interesadas. La simplificación administrativa tiene tres pilares básicos, organizativa, procedimental y normativa.

Sistema de inteligencia artificial: sistema basado en máquinas que está diseñado para funcionar con distintos niveles de

diseinatuta dagoena eta hedatu ondoren egokitze-gaitasuna izan dezakeena. Helburu esplizitu zein inplizituarentzako, jasotzen duen sarrera-informaziotik abiatuta inferitzen du nola eman irteera-emaizak, hala nola iragarpenak, edukiak, gomendioak eta erabakiak, zeinak ingurune fisiko edo birtualetan izan baitezakete eragina.

autonomía y que puede mostrar capacidad de adaptación tras el despliegue, y que, para objetivos explícitos o implícitos, infiere de la información de entrada que recibe la manera de generar resultados de salida, como predicciones, contenidos, recomendaciones o decisiones, que pueden influir en entornos físicos o virtuales.

Baterako izapidetzea edo izapidetze bateratua: datuak eskuratzeko eta tratatzeko mekanismoa, jarduera berari buruzko administrazio-prozedura bat baino gehiago egonez gero aukera ematen duena interesdunek administrazio publikoei behin bakarrik aurkezteko beren jarduerari eta establezimenduei buruzko datuak eta dokumentuak; mekanismo horrek ahalbidetu behar du datuen eta dokumentuen kalitatea eta koherentzia bermatzea.

Tramitación conjunta o unificada: mecanismo de captura y tratamiento de datos que, en caso de concurrencia de varios procedimientos administrativos sobre una misma actividad, permite que las personas interesadas faciliten a las administraciones públicas los datos y los documentos relativos a su actividad y sus establecimientos una única vez y que garantiza su calidad y coherencia.

Leihatila bakarra: zerbitzu bati edo batzuei lotutako izapide guztiak instantzia, organismo edo leku fisiko zein birtual bakar batean biltzea; horrenbestez, interesdunak ez du beste instantzia, organismo edo leku batzuetara joan beharrik izango.

Ventanilla única: agrupamiento, en una sola instancia, organismo o lugar, presencial o virtual, donde realizar todos los trámites asociados a uno o varios servicios sin necesidad de desplazarse a otras instancias, organismos o lugares.

II. KAPITULUA. HERRITARRENTZAKO ARRETAREN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKO DIGITALAREN PRINTZIOAK

CAPÍTULO II. PRINCIPIOS DE ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DIGITAL

5. artikulua. Printzipio orokorrak

Artículo 5. Principios generales

Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean jasota dauden jarduketa-printzipioez, funtzionamenduaren eta herritarrekiko interakzioaren printzipioez eta administrazio elektronikoaren printzipioez gain eta Estatuko oinarritzko legedian ezarrita daudenez gain, EAEko sektore publikoa osatzen duten subjektu guztiei kapitulu honetan ezarritako printzipioak aplikatuko zaizkie.

Además de los principios de actuación, funcionamiento e interacción con la ciudadanía y de la administración electrónica previstos en la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco y en la legislación básica estatal, resultarán de aplicación a todos los sujetos integrantes del sector público vasco los establecidos en el presente capítulo.

6. artikulua. Herritarrentzako arretaren printzipioak.

EAEko sektore publikoak eskainiko duen herritarrentzako arretak printzipio hauek betetzen direla bermatuko du:

a) Begirunea, ardura eta errespetu handiena izatea arreta-zerbitzuetan eta, oro har, pertsonetik harremanetan.

b) Herritarrek erdigunean dauzkan kalitateko zerbitzua izatea, arreta-sistema integral, irisgarri eta multikanalak hedatuta.

c) Argitasuna eta herritarrekiko hurbiltasuna izatea bulegoetan, kanaletan, hizkeran, prozesuetan, izapideetan eta atazetan.

d) Informazioa objektiboa, egiazkoa, osoa, autentikoa, eguneratua eta homogeneoa izatea, transmisio-bidea edozein dela ere.

e) Konfidentzialtasuna gordetzea eta datu pertsonalen babesa errespetatzea.

f) Administrazio-egitura guztien erantzukidetasuna, bakoitzari dagokion arreta-mailan.

g) Gainerako administrazio publikoekin lankidetzan eta elkarlanean aritzea eta koordinatzea, herritarrei arreta emateko.

h) Administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasuna.

i) Zerbitzuak eta arreta euskaraz emateko eta jasotzeko eskaintza aktiboa egitea.

7. artikulua. Ingurune birtualetako presentziaren printzipioak

Ingurune birtualetako presentzia erabiltzaileen esperientzian oinarrituta

Artículo 6. Principios de la atención a la ciudadanía.

La atención a la ciudadanía por el sector público vasco garantizará la materialización de los siguientes principios:

a) Deferencia, esmero y máximo respeto en la prestación de los servicios de atención y, en general, en el trato con las personas.

b) Servicio de calidad orientado a la ciudadanía mediante el despliegue de sistemas de atención integral, accesible y multicanal.

c) Claridad y proximidad a la ciudadanía en dependencias, canales, lenguaje, procesos, trámites, y ejecución de tareas.

d) Objetividad, veracidad, integridad, autenticidad, actualización, y homogeneidad de la información con independencia de su medio de transmisión.

e) Confidencialidad y respeto a la protección de datos de carácter personal.

f) Corresponsabilidad de todas las estructuras administrativas en el nivel de atención que les corresponda.

g) Cooperación, colaboración y coordinación con el resto de las Administraciones públicas en la atención a la ciudadanía.

h) Interoperabilidad entre las Administraciones públicas

h) Oferta activa para prestar y recibir servicios y atención en euskera.

Artículo 7. Principios de la presencia en entornos virtuales

La presencia en entornos virtuales será diseñada sobre la base de la experiencia

diseinatuko da, eta printzipio hauek errespetatu beharko dira beti:

a) Dagokion irudi instituzionalaren batasuna.

b) Ingurune birtualetan argitaratzen denaren gaineko erantzukizuna.

c) Eskuragarritasuna.

d) Webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irigarritasuna.

e) Edukien kalitatea eta koherentzia.

f) Gardentasuna, publikotasuna eta herritarren parte-hartzea.

g) Erabiltzaileei begirako diseinua eta ikuspegia.

h) Personalizazioa, kolektibo espezifikoien eta pertsona-profilen eskaerara eta berezitasunetara egokitzeak.

i) Arrazionaltasuna, efikazia eta efizientzia, herritarrekin harremanak izateko kanalak eta guneak sortzeko eta mantentzeko.

8. artikulua. Zerbitzu publikoen eta administrazio digitalaren printzipioak.

Herritarrentzako zerbitzuek printzipio hauek bete behar dituzte:

a) Herritarren beharretara orientatzea eta erabiltzaileak erdigunean jartzea.

b) Erregulazio ona, hala nola araudia sinplifikatzea eta administrazio-kargak ezabatzea.

c) «Behin bakarrik» printzipioa, bermatuko duena herritarrek informazioa behin bakarrik emango dutela eta ez zaiela eskatuko EAEko sektore publikoak lehendik duen daturik eta dokumenturik berriro aurkeztea.

d) Prestazioaren jarraitutasuna; horretarako, gerta daitezkeen segurtasun-gorabeherei

de las personas usuarias y, en todo caso, deberá respetar los siguientes principios:

a) Unidad de imagen institucional que corresponda en cada caso.

b) Responsabilidad sobre lo que se publica en los entornos virtuales.

c) Disponibilidad

d) Accesibilidad de los sitios web y aplicaciones para dispositivos móviles.

e) Calidad y coherencia de contenidos.

1. Con independencia de que cada canal de atención a la ciudadanía ofrezca la totalidad de los servicios públicos y funcione bajo el concepto de "ventanilla única", se crearán también ventanillas únicas para servicios específicos relacionados con los eventos vitales de las personas y con las actividades de los diferentes colectivos.

En los procedimientos relativos al acceso a una actividad de servicios y su ejercicio se estará a lo dispuesto en el artículo 69.3 de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco.

2. El sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi cooperará con el resto del sector público vasco para favorecer la interconexión de sus oficinas de atención con el fin de permitir que la ciudadanía pueda realizar los trámites administrativos a través de un único contacto presencial, telefónico, por Internet o a través del móvil y reciba la información y asistencia que precise.

3. Así mismo, colaborará para el despliegue de ventanillas interinstitucionales en cualquiera de los canales de atención, incluido el canal presencial para facilitar la atención a la ciudadanía de forma presencial unificada, prioritariamente en zonas del territorio lejanas a las capitales de los Territorios Históricos.

Artículo 21. Centros de gestión unificada.

1. En aras de la implementación y consecución de objetivos, por razones de eficacia y eficiencia, y con la finalidad de hacer efectiva la tramitación conjunta de las actuaciones de un proyecto, podrán constituirse unidades administrativas de carácter provisional al objeto de facilitar y agilizar la tramitación.

2. Izapidetzeko konplexuak diren edo eragin ekonomiko edo sozial handia duten prozesuak sail bateko edo batzuetako administrazio-entitateen edo -entitateen bidez kudeatu behar direnean, kudeaketa bateratuko zentroak sortu ahal izango dira, kontaktu gune bakar izateko, Euskal Sektor Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 30. artikulua araberak.

2. Para la gestión de aquellos procesos complejos en su tramitación o de gran incidencia económica o social, en los que deban intervenir órganos o unidades administrativas de uno o varios departamentos, podrán crearse los centros de gestión unificada, como único punto de contacto, de conformidad con el artículo 30 de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco.

22. artikulua. Euskadiko Herritarren Karpeta

Artículo 22. Carpeta Ciudadana de Euskadi

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak egoitza elektronikoa Euskadiko Herritarren Karpeta bakarra ezar dadin lan egingo du, kudeaketa koordinatua eta efizientea izatea eta herritarrei zuzendua egotea errazteko, betiere herritarren karpeten bidez ematen diren zerbitzuen koherentzia bermaturik.

1. En el objetivo de facilitar una gestión coordinada, eficiente y orientada a la ciudadanía, asegurando la coherencia de los servicios prestados desde las distintas carpetas ciudadanas, la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi impulsará el establecimiento de una única Carpeta Ciudadana de Euskadi en sede electrónica.

2. Sektor publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren 7.3 artikuluekin bat etorriz, Euskadiko Herritarren Karpeta gune pertsonalizatua izango da, zeinaren bidez interesdunak, datu pertsonalen osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko dituzten prozedura seguruak baliatuz, berari dagokion informazioa irispidea izango baitu eta EAEko administrazio publikoen eremuko jakinarazpen eta komunikazioei eta eragiten dioten administrazio-izapideei jarraipena egin ahal izango baitie.

2. De conformidad con el artículo 7.3. del Real Decreto 203/2021, de 30 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de actuación y funcionamiento del sector público por medios electrónicos, la Carpeta Ciudadana de Euskadi constituirá el área personalizada a través de la cual cada persona interesada, mediante procedimientos seguros que garanticen la integridad y confidencialidad de sus datos personales, podrá acceder a su información, al seguimiento de los trámites administrativos que le afecten y a las notificaciones y comunicaciones en el ámbito de las Administraciones públicas vascas.

3. Euskadiko Herritarren Karpeta hainbat administrazioetako herritarren karpetetako zerbitzuen interkonexioan oinarritu ahal izango da; alegia, gaur egun eskuragarri dauden sistemen berrerabileran, elkarreragingarritasunean eta plataformen eta organismoen arteko informazio-truke seguruan.

3. La Carpeta Ciudadana de Euskadi podrá basarse en la interconexión de los servicios de las carpetas ciudadanas de las distintas administraciones públicas, en la reutilización de los sistemas actualmente disponibles, la interoperabilidad y el intercambio seguro de información entre plataformas y organismos.

23. artikulua. Euskadiko ahalordeen erregistro elektronikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak Euskadiko ahalordeen erregistro elektronikoa bakarria ezartzea bultzatuko du, interesdunek edozein administrazio-espeditetarako ahalordeak eman ditzaten, EAEko administrazio eskuduna edozein dela ere.

Artículo 23. Registro Electrónico de Apoderamientos de Euskadi

La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi impulsará el establecimiento de un único Registro Electrónico de Apoderamientos de Euskadi en la que las personas interesadas puedan otorgar apoderamientos para cualquier expediente administrativo con independencia de la Administración vasca competente.

24. artikulua. Dokumentuak erregistratzeko entitate laguntzaileak.

1. Idazkiak, dokumentuak eta eskabideak Administrazioaren entitate laguntzaileen bidez aurkez daitezke, kasuan kasuko prozedura edo jarduketa erregulatzen duen araudiak hala xedatzen badu.

Halakoetan, zehatz adierazi beharko da, batetik, zein den ukitutako kolektiboa eta, bestetik, eskabideak entregatzera soilik mugatuko den lankidetzaren edo, hala badagokio, beste edozein izapidetara zabaltzeko ahal izango den.

2. Orobat, berme teknikoak eta antolamendukoak ezarriko dira, honako hauek modu frogagarrian ziurtatzeko: eskabidearen, idazkiaren edo komunikazioaren aurkezpen-data, osotasuna eta autentikotasuna; interesdunaren identitatea; interesdunari jaso-agiria entregatu izana, eta dokumentuak aurkezteak berekin dakarren jarduketa edo prozedura izapidetzeko organo eskudunari informazioa eta dokumentuak bitarteko elektronikoen bidez transmititu izana.

Artículo 24. Entidades colaboradoras de registro de documentos.

1. La presentación de escritos, documentos y solicitudes podrá realizarse a través de entidades colaboradoras de la Administración cuando así lo determine la normativa reguladora de cada procedimiento o actuación.

En este caso, se deberá especificar el colectivo afectado e indicar si la colaboración se limitará a la entrega de la solicitud o, en su caso, podrá extenderse a cualquier otro trámite.

2. Así mismo, se precisarán las garantías técnicas y organizativas que aseguren fehacientemente la fecha de presentación, la integridad y autenticidad de la solicitud, escrito o comunicación, la identidad de la persona interesada, y la entrega del correspondiente recibo a ésta, así como la transmisión por medios electrónicos de dicha información y documentos al órgano competente para la tramitación del procedimiento o actuación a que dé lugar la presentación realizada.

25. artikulua. Administrazio-organoen arteko komunikazioak.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko organo eta entitateen arteko komunikazioak eta beste administrazio

Artículo 25. Comunicaciones entre órganos de las Administraciones.

1. Las comunicaciones entre los órganos y las entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi y con

publiko batzuekin izan beharrekoak bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira.

otras Administraciones públicas se realizarán por medios electrónicos.

2. Komunikazioak egiteko erabiliko diren sistemek datu hauek jasota geratzen direla bermatu beharko dute: komunikazioa egin izana; zer egunetan eta ordutan bidali eta jaso den; bidaltzailearen eta hartzailearen identifikazioa, eta informazioaren osotasuna eta trazabilitatea.

2. Las comunicaciones se llevarán a cabo a través de sistemas que garanticen la constancia de la práctica de la comunicación y las fechas y horas del envío y recepción, así como la identificación de remitente y persona destinataria, la integridad de la información y su trazabilidad.

3. Bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 (EB) Erregelamenduak arautzen duen entrega elektroniko ziurtatuaren zerbitzu kualifikatua erabili ahal izango da – 910/2014 (EB) Erregelamendua, barnermerkatuko transakzio elektronikoetarako identifikazio elektronikoari eta konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa–.

3. En particular, podrá hacerse uso del servicio cualificado de entrega electrónica certificada previsto en el Reglamento (UE) No 910/2014 del Parlamento Europeo y del Consejo de 23 de julio de 2014 relativo a la identificación electrónica y los servicios de confianza para las transacciones electrónicas en el mercado interior.

26. artikulua. Herritarrei komunikazioak eta jakinarazpenak egiteko kanala

Artículo 26. Canal de comunicación y notificación con la ciudadanía

1. Herritarrentzako komunikazioak informatzeko soilik badira, edo informalak badira, horretarako prestatutako edozein harreman-kanalen bidez egin ahal izango dira. Aitzitik, komunikazioak administrazio-prozedura baten barruan egiten direnean, erabiliko diren tresnek alderdi hauek jasota geratzen direla bermatu beharko dute: komunikazioa egin izana, eta komunikazioaren datak eta edukia.

1. Las comunicaciones con la ciudadanía podrán realizarse a través de cualquiera de los canales de relación habilitados al efecto cuando sean meramente informativas o informales. Cuando, por el contrario, se realicen en el marco de un procedimiento administrativo, deberá hacerse uso de instrumentos que garanticen la constancia de su realización, fechas y contenido.

2. Jakinarazpenak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen dena betez egingo dira.

2. La práctica de las notificaciones atenderá a lo dispuesto en los artículos 41 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

3. Zerbitzu publikoen erabiltzaileei buruzko datu-base korporatiboa –17. artikuluan arautua– herritarrekin harremanetan jartzeko eta erlazionatzeko datu-basea izango da, eta, hari esker, herritarrek komunikazioak eta jakinarazpenak jaso ahal izango dituzte, aurrez aurre zein kanal elektronikoaren bidez, zerbitzu publiko eta prozedura guztietarako.

3. La Base de Datos Corporativa de Personas Usuarias de los Servicios Públicos regulada en el artículo 17 constituirá la base de datos de contacto y relación con la ciudadanía para que esta reciba las comunicaciones y notificaciones en los canales presencial y electrónico, común para todos los servicios públicos y todos los procedimientos.

27. artikulua. Datuak transmititzea eta egiaztatzea.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek zenbait mekanismo eta tresna ezarriko dituzte, datuak elkarren artean eta beste administrazio publiko batzuekin eta entitate juridiko pribatuekin transmititu eta egiaztatu ahal izateko; hartara, Administrazioa sinplifikatu eta zerbitzu publiko hobea emango da, segurtasunez eta konfidentzialtasunez.

Tresna horiei buruzko memorian berariaz jasoko da zer neurri teknikok ziurtatzen duten datuen erabileraren eta aprobetxamenduaren elkarrekotasuna, eta zer neurriek egiaztatzen duten datuak lagatzeko baldintzen betetzea.

2. Plataforma horri atxikitzeko eta, halaber, izapideak eta jarduketak txertatzeko, nahitaez bermatu beharko da elkarrengarritasunari, segurtasunari eta datu pertsonalen babesari buruzko araudia betetzen dela.

II. TITULUA. ADMINISTRAZIOA SINPLIFIKATZEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAN

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

28. artikulua. Administrazio publiko digitala

1. Zerbitzuak eta prozedurak hainbat kanalen bidez emango dira, eta haiei buruzko informazioa erreferentzia- eta sarbide-puntu bakar batean jasoko da.

Horretarako, eraldaketa digitaleko prozesu beharrezkoari ekin behar zaio, antolamenduneurriak, egiturazkoak eta zerbitzuak berriridiseinatzekoak aplikatuz, betiere herritarrak prozesuen erdigunean jarrita.

Artículo 27. Transmisión y verificación de datos.

1. Las entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi establecerán los mecanismos e instrumentos que permitan la transmisión y verificación de datos entre sí, con otras Administraciones públicas, así como con entidades jurídicas privadas, con el objetivo de la simplificación administrativa y mejor servicio público en condiciones de seguridad y confidencialidad.

En la memoria de dichos instrumentos se hará constar expresamente las medidas técnicas dirigidas a asegurar la reciprocidad en el uso y aprovechamiento de los datos, así como aquellas otras destinadas a comprobar el cumplimiento de las condiciones de cesión de estos.

2. La adhesión a esta plataforma y, asimismo, la incorporación de cada uno de los trámites y actuaciones requerirá que se garantice el cumplimiento de la normativa sobre interoperabilidad, seguridad y protección de datos de carácter personal.

TÍTULO II. DE LA SIMPLIFICACIÓN ADMINISTRATIVA EN EL SECTOR PÚBLICO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 28. Administración pública digital

1. Los servicios y procedimientos se prestarán de forma multicanal y su información se dispondrá en un único punto de referencia y acceso.

Para ello, se deberá abordar el proceso de transformación digital necesario, aplicando medidas organizativas, estructurales y de rediseño de los servicios que pongan a la ciudadanía en el centro de los procesos.

2. Nazioarteko organismoen eta Europar Batasunaren gidalerroei jarraituz, zerbitzu publikoek irizpide hauek bete behar dituzte:

a) Berez digitalak izango dira, egokia bada; alegia, gutxienez kanal digital bat egongo da zerbitzu publiko jakin batera irispidea izateko eta hura erabiltzeko.

b) Lehentasunez digitalak izango dira: lehentasuna emango zaio zerbitzu publikoak kanal digitalen bidez erabiltzeari, eta entrega multikanalaren kontzeptua eta "okerreko aterik ez" politika aplikatuko dira; bestera esanda, kanal fisikoak eta digitalak batera existituko dira.

3. Lege honen 8.g) artikuluan ezarritako zeharkakotasun-printzipioaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak honako hauek izango ditu:

a) Zerbitzuak eta prozedurak digitalizatzeko protokolo bakarra, aplikatu beharreko prozesuak eta irizpideak ezarriko dituena.

b) Izapidetze elektronikorako plataforma komuna.

c) Herritarrentzako interfaze homogeneoak.

d) Espediente-kudeatzaile komuna.

e) Datu-gobernantzaren plataforma komuna.

f) Dokumentuak kudeatzeko eta artxibatzeko sistema eta eredu bakarra.

g) Administrazio digitalaren zerbitzu komunak erabilerari buruzko adierazle-sistema eta aginte-taula, benetako eta une oro eguneratutako informazioa emateko, kontrola eta jarraipena ahalbidetzeko eta plangintza eta ebaluazioa datuetan oinarrituta gauzatzeko.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak ordainketa elektronikoa bultzatuko du; horretarako, kobrantza-eskubide guztiak

2. Siguiendo las directrices de los organismos internacionales y de la Unión Europea, los servicios públicos atenderán a los siguientes criterios:

a) Digital por defecto, cuando sea apropiado, de modo que haya al menos un canal digital disponible para acceder y utilizar un determinado servicio público.

b) Digital primero: se dará prioridad al uso de los servicios públicos a través de canales digitales mientras se aplica el concepto de entrega multicanal y la política de "ninguna puerta equivocada"; es decir, los canales físicos y digitales coexistirán.

3. En el marco del principio de transversalidad establecido en el artículo 8.g. el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi dispondrá de

a) Un protocolo único de digitalización de servicios y procedimientos que establezca los procesos y criterios a seguir.

b) Una plataforma común de tramitación electrónica.

c) Interfaces homogéneas para la ciudadanía

d) Un gestor de expedientes común.

e) Una plataforma común de gobierno del dato.

f) Un sistema y modelo único de gestión documental y archivo.

g) Un sistema de indicadores y cuadro de mando sobre la utilización de los servicios comunes de la Administración digital, con objeto de proporcionar información real y permanentemente actualizada, posibilitar su control y seguimiento y la planificación y evaluación basadas en datos.

4. El sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi fomentará el pago electrónico mediante la emisión de todos

(tasak, prezio publikoak, isunak, zehapen ekonomikoak, etab.) finantza-entitateen zehaztapen teknikoan arabera igorriko ditu, eta alta emango die EAEko administrazioen ordainketa-pasabideko informazio-sisteman.

los derechos de cobro (tasas, precios públicos, multas, sanciones económicas, etc.) según las especificaciones técnicas de las entidades financieras, y dará de alta en el sistema de información de la Pasarela de Pagos de las Administraciones vascas cada uno de los derechos de cobro

5. Laguntzak metatzeko ezarrita dauden mugak kontrolatzeko eta iruzurra desagerrarazten laguntzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osorako plataforma komun bat ezarriko da, herritarrek zer laguntza jaso dituzten kontsultatu ahal izateko.

5. Con objeto del control de los límites de acumulación de ayudas y contribución a la eliminación del fraude se implementará una plataforma común de todo el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi de consulta de las ayudas recibidas por la ciudadanía.

29. artikulua. Administrazioa sinplifikatzeko eginbehar orokorra.

Artículo 29. Deber general de simplificación administrativa.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitate guztiek behar diren neurriak hartuko dituzte, bermatzeko barne-prozesuen, zerbitzu eta prozeduren eta herritarrekiko harremanen administrazio-lana sinplifikatzen dela. Horretarako, nork bere eskumen-eremuan egoki diren aldaketak egingo ditu, eta sinplifikazioa eragozten edo zailtzen duten oztopo guztiak kenduko ditu, eta beharrezkoak diren egokitzapenak egingo, bai araugintzaren arloan, bai beste arlo batzuetan.

1. Todas las entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi adoptarán las medidas necesarias para garantizar la simplificación administrativa tanto de sus procesos internos como de los servicios y procedimientos y en las relaciones con la ciudadanía, para lo cual se llevarán a cabo las modificaciones que procedan en sus respectivos ámbitos de competencia removiendo todos los obstáculos que lo impidan o dificulten y realizando aquellas adaptaciones que sean necesarias, ya sean de carácter normativo o no.

2. Administrazio-sinplifikazioa, oro har, eraldaketa digitalaren arloko jarduketa guztietan aplikatuko da, eta, bereziki, prozesuen eta prozeduren digitalizazioaren arlokoetan; izan ere, administrazioa sinplifikatzea prozesuak eta prozedurak digitalizatzeko protokoloaren parte izango da.

2. La simplificación administrativa se aplicará de forma indisoluble de las actuaciones en materia de transformación digital en general y de digitalización de procesos y procedimientos en particular y formará parte del protocolo de digitalización de estos.

3. Zerbitzu edo prozedura bat edo deialdi bat erregulatuko duen araudia onartu aurretik eta, hala badagokio, hura abian jarri aurretik, 34. artikuluan jasotzen diren neurriak betetzen direla ziurtatu beharko da.

3. Con carácter previo a la aprobación de la normativa que regule un servicio o procedimiento o de la correspondiente convocatoria, así como, en su caso, de su puesta en marcha se deberá garantizar el cumplimiento de las medidas que se contemplan en el artículo 34.

Herritarrentzat sinpleagoak diren eta administrazio-karga gutxiago eragiten duten arau- eta kudeaketa-aukeren alde egin beharko da.

Deberán adoptarse aquellas alternativas regulatorias y de gestión que impliquen una mayor simplificación y menores cargas administrativas para la ciudadanía.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak, bere eskumenen esparruan, koordinazio- eta lankidetzamekanismoak garatzea eta jardueretan esku hartzeko ahalmenak batera erabiltzea sustatuko du, hartara administrazio-simplifikazioa eta arintasuna bultzatzeko, proiektu zehatzak edo sektore espezifikoetakoak izapidetzean eta egikaritzean.

4. La Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi promoverá en el ámbito de sus competencias el desarrollo de mecanismos de coordinación y colaboración y el ejercicio conjunto de facultades de intervención sobre actividades, con el fin de impulsar la simplificación administrativa y la agilidad en la tramitación y ejecución de proyectos concretos o sectores específicos.

5. Administrazioa sinplifikatzeko prozesua kolektibo jakin bati berariaz eragiten dion administrazio-prozedura batean gauzatzen bada, kolektibo horrek prozesuan parte har dezala aurreikusit beharko da.

5. Cuando el proceso de simplificación administrativa se desarrolle en el marco de un procedimiento administrativo cuyo objeto afecte específicamente a un determinado colectivo, deberá preverse su participación en el citado proceso.

30. artikulua. Administrazioa sinplifikatzeko lanaren sustapena eta bultzada.

Artículo 30. Promoción, fomento e impulso de la simplificación administrativa.

1. Administrazioa sinplifikatzeko helburua zabaltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak ekintza hauek egin beharko ditu, besteak beste:

1. Para el despliegue de la simplificación administrativa, el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi deberá llevar a cabo, entre otras, las siguientes acciones:

a) Administrazioa sinplifikatzeko politika programatzea, hurrengo artikuluen arabera.

a) Programar la política de simplificación administrativa de conformidad con el artículo siguiente.

b) Administrazioa sinplifikatzeko programatuta dauden neurrien betearazpenaren jarraipena eta kontrola egitea.

b) Realizar el seguimiento y control de la ejecución de las medidas de simplificación administrativa programadas.

c) Administrazioa sinplifikatzeko neurrien emaitzak eta neurriok betearaztearen eragina ebaluatzea.

c) Evaluar los resultados y el impacto de la ejecución de las medidas de la simplificación administrativa.

d) Administrazio digitalak behar dituen prozesuak, aplikazioak eta tresnak ezartzea antolakundeetan, zeharka, betiere

d) Implementar los procesos, aplicaciones e instrumentos necesarios de la Administración digital con carácter transversal en las organizaciones, con visión centrada en la ciudadanía y de

herritarrak erdigunean jarrita eta EAEko administrazio publikoekin koordinatuta.

forma coordinada entre las Administraciones públicas vascas.

e) Administrazioa sinplifikatzeko beharrezkoak diren barne- eta kanpo-aldaketak kudeatzeko ekintzak exekutatzea.

e) Ejecutar las acciones de gestión del cambio internas y externas necesarias para la simplificación administrativa.

f) Komunikazio-sare elektronikoak, beste aplikazio batzuekiko elkarreragingarritasuna eta aplikazioen berrerabilera sustatzea, finkatzea eta indartzea.

f) Promover, consolidar y potenciar redes de comunicación electrónicas, la interoperabilidad con otras aplicaciones y su reutilización.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak, bere eskumenen esparruan, koordinazio- eta lankidetzak mekanismoak garatzea eta jardueretan esku hartzeko ahalmenak batera erabiltzea sustatu behar du, hartara administrazio-sinplifikazioa eta arintasuna bultzatzeko, proiektu zehatzak edo sektore espezifikoetakoak izapidetzean eta egikaritzean.

2. El sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi debe promover, en el ámbito de las respectivas competencias, el desarrollo de mecanismos de coordinación y colaboración y el ejercicio conjunto de facultades de intervención sobre actividades, para impulsar la simplificación administrativa y la agilidad en la tramitación y la ejecución de proyectos concretos o sectores específicos.

31. artikulua. Administrazioa sinplifikatzeko lana programatzea.

Artículo 31. Programación de la simplificación administrativa.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak administrazioa sinplifikatzeko programa egingo du bost urtean behin, dagokion jarduketaren eremuan.

1. El sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi elaborará con una periodicidad quinquenal el Programa de Simplificación Administrativa en su respectivo ámbito de actuación.

2. Programa horrek, aurrez diagnostikatutako beharrak abiapuntutzat hartuta eta herritarrak erdigunean jarrita, Administrazioa sinplifikatzeko neurriak eta jarduketak ezarriko ditu, aurreko programaren ebaluazioa aintzat hartuta – ebaluazio hori Administrazio Elektronikorako Aholku Batzordeari bidali behar zaio–.

2. El Programa, partiendo de las necesidades diagnosticadas y situando a la ciudadanía en el centro de este, establecerá las medidas y actuaciones de simplificación administrativa, partiendo de la evaluación del programa anterior, evaluación que deberá remitirse al Consejo Asesor para la Administración Electrónica.

3. Administrazioa sinplifikatzeko programetan, alderdi hauek jasoko dira, gutxienez:

3. Los Programas de Simplificación Administrativa, contendrán, al menos:

a) Dagokion aldirako ezarri diren helburuak.

a) Objetivos para el periodo.

b) Egin beharreko jarduketak eta haien kronograma.

b) Actuaciones a ejecutar y cronograma de estas.

c) Jarduketan exekuzioaren eta betetze-mailaren jarraipena egiteko eta haien emaitzak eta eragina ebaluatzeko aukera ematen duten adierazleak.

d) Jarduketak exekutatzeaz arduratuko diren organoak.

c) Indicadores que permitan el seguimiento de su ejecución, del grado de cumplimiento, así como la evaluación de resultados e impacto.

d) Órganos responsables de su ejecución.

32. artikulua. Administrazioa sinplifikatzeko lanaren jarraipena, ebaluazioa eta gardentasuna.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek administrazio-sinplifikazioaren eta hori lortzeko gauzatutako neurrien jarraipena eta ebaluazioa egingo dute, eta urtero argitaratuko dute informazio hori, dagokion Interneteko atari korporatiboan.

2. Ebaluazioa egiteko, aurreko artikuluko 3.c) apartatuko adierazle-sistema hartuko da oinarri.

3. Zerbitzu elektronikoen gaineko eskumena duten organoek dokumentu hauek argitaratuko dituzte urtean behin, entitate bakoitzak Interneten duen atari korporatiboan:

a) Administrazioa sinplifikatzeko programak eta haien ebaluazio-txostenak.

b) Hurrengo artikuluko 6. apartatuan aipatzen den txostena.

c) Administrazioa sinplifikatzeko eta kargak murrizteko gauzatutako era guztietako jarduketei buruzko informazioa, urtean behin.

33. artikulua. Herritarren parte-hartzea Administrazioa sinplifikatzeko prozesuan.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak sustatu eta bermatuko du ezen herritarrek parte hartuko dutela Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko Administrazioa sinplifikatzeko programak

Artículo 32. Seguimiento, evaluación y transparencia de la simplificación administrativa

1. Las entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi realizarán un seguimiento y evaluación de la simplificación administrativa y de las medidas ejecutadas para su consecución y procederán a la publicación anual de las mismas en el portal corporativo en Internet correspondiente.

2. La evaluación se basará en el sistema de indicadores del apartado 3c del artículo anterior

3. Los órganos competentes en servicios electrónicos publicarán anualmente en los portales corporativos de cada entidad en Internet:

a) Los Programas de Simplificación Administrativa y los informes de evaluación de estos

b) El informe del apartado 6 del artículo siguiente.

c) La información sobre las actuaciones de todo tipo ejecutadas para la reducción de cargas y simplificación administrativa, con periodicidad anual.

Artículo 33. Participación de la ciudadanía en la simplificación administrativa

1. El sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi fomentarán y garantizarán la participación de la ciudadanía en el diseño, desarrollo, implantación y evaluación de los Programas de Simplificación

diseinatzen, garatzen, ezartzen eta ebaluatzen.

2. Administrazioa sinplifikatzeko prozesua kolektibo jakin bati berariaz eragiten dion administrazio-prozedura batean gauzatzen bada, kolektibo horrek prozesuan parte har dezala aurreikusi beharko da. Era berean, prozedurak izapidetzen esku hartzen duten beste administrazio edo entitate publiko batzuei ere eskatu ahal izango zaie parte har dezatela.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren egoitza elektroniko guztiek iradokizunen eta proposamenen postontzi bat izango dute, modu argian eta irisgarrian jarrita, Administrazioa sinplifikatzeko; hots, prozedurak arintzeko, administrazio-kargak murrizteko eta arauak hobetzeko.

Postontzi hori eskuragarri egongo da, halaber, herritarrek parte hartzeko «Irekia» atarian.

4. Postontzian jasotako iradokizunak eta proposamenak kasuan kasuko gaian eskumena duen administrazio-organismoak aztertuko ditu, haien bideragarritasuna eta abiaraztea baloratzeko. Halaber, organismo horrek jakinaraziko dizkie interesdunei azterketaren emaitza, hartutako erabakia eta horretarako egon diren arazoak.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak enpresen eta gizartearen parte-hartzea bultzatuko du administrazio-sinplifikazioaren arloan, eta antolakunde profesionalekin eta elkarteekin aritzeko jarduketak sustatuko ditu, araudiak, oro har, eta prozedurek, bereziki, xede dituzten kolektiboetan duten eragina ezagutzeko eta administrazio-kargak identifikatu eta murrizteko eta prozedurak sinplifikatzeko.

Identifikatutako prozedurak eta jasotako proposamenak gaiaren arabera eskumena duten administrazio-organismoak helaraziko

Administrativa del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2. Cuando el proceso de simplificación administrativa se desarrolle en el marco de un procedimiento administrativo cuyo objeto afecte específicamente a un determinado colectivo, deberá preverse su participación en el citado proceso. Asimismo, podrá solicitarse la participación de otras administraciones o entidades públicas que intervengan en la tramitación de los procedimientos.

3. Todas las sedes electrónicas del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi dispondrán de forma clara y accesible de un buzón de sugerencias y propuestas para la simplificación administrativa: agilización de los procedimientos, la reducción de cargas administrativas y la mejora de las normas.

Dicho buzón estará también disponible en el portal de participación de la ciudadanía, Irekia.

4. Las sugerencias y propuestas que se reciban serán analizadas y estudiadas por el órgano administrativo competente en la materia de que se trate para valorar su viabilidad y puesta en práctica, quien comunicará a las personas interesadas de forma argumentada el resultado del análisis y la decisión adoptada.

5. El sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi fomentará la participación del sector empresarial y social en la simplificación administrativa promoviendo actuaciones con organizaciones profesionales y asociaciones para conocer el efecto que la normativa en general y los procedimientos en particular tienen sobre los colectivos a los que van dirigidos y para la identificación y reducción de las cargas administrativas y simplificación de los procedimientos.

Los procedimientos identificados, así como las propuestas recibidas, serán trasladados a los órganos administrativos

zaizkie, azter ditzaten eta haien bideragarritasuna eta abiaraztea balora ditzaten.

competentes por razón de la materia para su análisis y valoración de la viabilidad y puesta en práctica.

6. Urtero argitaratuko da postontzia kudeatzearen ondoriozko emaitzen txostena, bai eta antolakundeekin eta elkarteekin administrazio-kargak identifikatzeko eta murrizteko sinatutako hitzarmenei buruzko txostena ere.

6. Anualmente se publicará el informe de resultados de la gestión del buzón, así como de los convenios firmados con organizaciones y asociaciones para la identificación y reducción de cargas administrativas.

34. artikulua. Administrazioa sinplifikatzeko neurriak.

Artículo 34. Medidas de simplificación administrativa

1. Administrazioa sinplifikatzeko neurrien artean, honako hauek daude:

1. Las medidas de simplificación administrativa incluyen:

a) Neurri materialak edo substantiboak: zerbitzuen eta prozeduren araudia hobetzea.

a) Medidas materiales o sustantivas: mejora regulatoria de servicios y procedimientos.

- Araugintza-kalitatearen eta erregulazio onaren gaineko neurriak.
- Administrazio-kargak murrizteko neurriak.

- Medidas de calidad normativa y buena regulación.
- Medidas de reducción de cargas administrativas.

b) Neurri formalak edo kudeaketa-neurriak.

b) Medidas formales o de gestión.

- Sinplifikatzeko barne-neurriak.
- Prozedura arintzeko eta arrazionalizatzeko neurriak.

- Medidas internas de simplificación
- Medidas de agilización y racionalización del procedimiento.

2. Zerbitzuak eta prozedurak erregulatzeko arauetan jaso behar diren neurri material edo substantiboen artean, honako hauek daude:

2. Entre las medidas materiales o sustantivas que deben contemplar las normas regulatorias de los servicios y procedimientos, se incluyen:

a) Izapidetze elektronikoa bultzatzea eta kanal elektronikoa erabiltzera behartuta egon daitezkeen kolektiboak identifikatzea.

a) Impulso de la tramitación electrónica e identificación de colectivos susceptibles de utilizar de forma obligada el canal electrónico.

b) Balio erantsirik ez dakarten edo prozedura atzeratzen duten izapideak ezabatzea, baldin eta horrek interesdunen bermeak ukitzen ez baditu.

b) Eliminación de trámites que no aporten valor añadido o que supongan dilaciones del procedimiento, siempre que no afecten a las garantías de las personas interesadas.

c) Ezinbestekoa den dokumentazioa bakarrik eskatzea, 10.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Exigencia únicamente de documentación imprescindible de conformidad con el artículo 10.2.b).

d) Ezinbestekoak ez diren dokumentuak aurkezteko eskaerak eta beste administrazio-karga batzuk ezabatzea, baldin eta alferrikakoak, errepikakorrek edo neurritz kanpokoak badira edo zaharkituta badaude, betiere administrazio-jarduerari exijitu behar zaizkion bermeak eta gardentasuna murriztu gabe.

e) "Bata bestearen truke" araua ezartzea, 8.c) artikuluan administrazio-kargak konpentsatzeko ezarritako printzipioa aplikatuz.

f) Atalaseak eta betekizunen mailaketa ezartzea zenbait administrazio-karga eskatzeko, aintzat hartuta kolektibo hartzaileen ezaugarriak, bereziki hirugarren sektorekoak badira eta bitarteko eskasak badituzte.

g) Datuak edo dokumentuak aurkezteko maiztasuna murriztea.

h) Oro har, eskatutako dokumentazioa izapideak amaitutakoan aurkez dadila ezartzea, salbu eta lehenago aurkeztea ezinbestekoa bada.

i) Datuak trukatzeko plataformak erabiltzea eta datu-iturriak eta erregistroak interkonektatzea.

j) Datuak egiaztatzea erregistro banatuko teknologien bidez, baldin eta datuen osotasuna eta autentikotasuna bermatzen badira.

k) Eskubideak eta prestazioak aitortzeko prozedurak, alderdi batek eskaturik hasi ordez, Administrazioak ofizioz hastea, baldin eta prozedura horien izaerak hala egitea ahalbidetzen badu; balizko onuradunari entzun behar zaio, prozedura hasi aurretik.

l) Eskubide bat baliatzeko edo jarduera bat hasteko, ahal den guztietan, erantzukizunpeko adierazpenak eta komunikazioak erabiltzea, baimenen,

d) Eliminación de exigencias de aportación de documentación y otras cargas administrativas no imprescindibles, innecesarias, repetitivas, desproporcionadas u obsoletas, sin merma de las garantías exigibles ni de la transparencia de la actividad administrativa.

e) Establecimiento de la regla "una por otra" en aplicación del principio de compensación de cargas administrativas del artículo 8.c).

f) Establecimiento de umbrales y graduación de requisitos para exigir el cumplimiento de determinadas cargas administrativas en función de las características de los colectivos destinatarios, especialmente en aquellos del tercer sector con medios limitados de todo tipo.

g) Reducción de la frecuencia de presentación de los datos o documentos.

h) Establecimiento, con carácter general, de la aportación de la documentación requerida al finalizar la tramitación, salvo que resulte imprescindible su incorporación en un momento anterior.

i) Utilización de plataformas de intercambio de datos, interconexión de fuentes de datos y registros.

j) Comprobación de datos mediante tecnologías de registro distribuido siempre que se garantice la integridad y la autenticidad de los datos.

k) Sustitución del inicio a instancia de parte por el inicio de oficio de la Administración en los procedimientos de reconocimiento de derechos y prestaciones, cuando la naturaleza de estos lo permita y previa audiencia de la posible persona beneficiaria.

l) Utilización de declaraciones responsables y comunicaciones en lugar del régimen de autorización, licencia u otros títulos habilitantes siempre que sea

lizentzien edo beste gaikuntza-titulu batzuen araubidearen ordeztu, betiere administrazio-jardueran eskatzekoak diren bermeak, gardentasuna eta kontrol publikoa murriztu gabe.

m) Erregistro jakin batzuetan inskribatzeko derrigortasuna aztertzea; inskribatzea nahitaezkoa dela ondorioztatuz gero, ofizioz egitea inskripzioa, erantzukizunpeko adierazpena edo komunikazioa aurkeztu ondoren edo gaikuntza-titulua eskuratu ondoren.

n) Gaikuntza-tituluen baliozkotasun-epeak luzatzea, hala nola baimenenak, lizentzienak eta erregistro-inskripzioenak.

o) Gaikuntza-tituluak (lizentziak, baimenak eta abar) automatikoki edo proaktiboki berritzea.

p) Eredu normalizatuak eta elektronikoak erabiltzea eskabide-formularioetarako, erantzukizunpeko adierazpenetarako, komunikazioetarako, ziurtagirietarako eta antzeko dokumentuetarako, bai eta gainerako administrazio-dokumentuetarako ere. Eredu horiek hizkera argiz idatzita eta erraz eta arin bete ahal izateko diseinatu egongo dira, eta beharrezkoak diren gutxieneko datuak baino ez dituzte eskatuko; ahal denean, aurrez beteta eskainiko dira.

q) Dokumentuak multzokatzea; alegia, dokumentu bakar batean jasotzea pertsona berak izapide berean –edo batean baino gehiagotan, prozeduraren kudeaketak ahalbidetzen badu– egin behar dituen aitorpenak, hau da, adierazpenak, ziurtagiriak edo antzeko jarduketak.

r) Bikoiztuta dauden kontrolak ezabatzea, legeak zorrotz betetzea ezertan eragotzi gabe.

s) Arauak berariaz indargabetzea eta indarrean dagoen araudia kontsolidatzea.

3. Neurri formalen edo kudeaketa-neurrien artean, honako hauek daude:

posible para el ejercicio de un derecho o el inicio de una actividad, sin merma de las garantías exigibles ni de la transparencia y control públicos de la actividad administrativa.

m) Revisión de la necesidad de determinados registros y, en caso de serlo, inscripción de oficio tras la presentación de una declaración responsable, comunicación o la obtención de un título habilitante.

n) Ampliación de los plazos de validez de títulos habilitantes como permisos, licencias, autorizaciones, inscripciones en registros, etc.

o) Renovación automática o proactiva de títulos habilitantes: licencias, autorizaciones, permisos, etc.

p) Utilización de modelos normalizados y electrónicos de formularios de solicitud, declaraciones responsables, comunicaciones, certificaciones y documentos de análogo carácter y demás documentos administrativos, con un lenguaje claro y con diseños que faciliten y agilicen su cumplimentación, con los datos mínimos necesarios y facilitando, cuando sea posible, su cumplimentación anticipada.

q) Agrupación documental, incorporando en un único documento las manifestaciones que, en forma de declaraciones, certificaciones o actuaciones de similar naturaleza, deba hacer una misma persona en un mismo trámite, o en varios si la gestión del procedimiento lo permite.

r) Eliminación de la duplicidad de controles, sin perjuicio del estricto cumplimiento de la legalidad.

s) Derogación expresa de la normativa y consolidación de la normativa vigente

3. Entre las medidas formales o de gestión, se incluyen:

- a) Administrazio-zerbitzuak eta -prozedurak osorik digitalizatzea, ikuspegi korporatiboa eta zeharkakoa baliatuz.
- a) La digitalización integral con visión corporativa y transversal de los servicios y procedimientos administrativos.
- b) Kudeaketa korporatiboko tresnak erabiltzea, datu-baseak eta aplikazio informatikoak interkonektatzea, eta EAEko gainerako sektore publikoarekiko lankidetzat sustatzea.
- b) La utilización de herramientas de gestión corporativa, interconexión de las distintas bases de datos y aplicaciones informáticas y fomento de la colaboración con el resto del sector público vasco.
- c) Prozedurak garatzeko epeak programatzea, kontuan hartuta zer eragin izan dezaketen prozeduretan –bereziki, herritarrei arreta emateko zerbitzuetan– administrazio-gorabeherak eta interesdunek sortzen dituzten intzidentziek.
- c) La programación temporal del desarrollo de los procedimientos, considerando el impacto de las incidencias administrativas o generadas por las personas interesadas en los mismos y, en especial, en los servicios de atención a la ciudadanía.
- d) Eskabide elektronikoarekin batera dokumentu-bolumen handiak aurkeztu behar dituzten kolektibo profesionalentzat berariazko neurriak garatzea.
- d) La presentación electrónica de solicitudes especialmente desarrollada para colectivos profesionales grandes prestadores de volumen de documentos.
- e) Ebazteko epeak eta tarteko eta erantzuteko epeak murriztea.
- e) La reducción de plazos de resolución y plazos intermedios y de respuesta.
- f) Administrazio-isiltasunak baiespen-ondorioak izan ditzala bultzatzea, eta administrazio-isiltasunak ezespen-ondorioak izango dituen kasuak mugatzea.
- f) El impulso del uso del sentido positivo del silencio administrativo y limitación de los supuestos en los que el silencio administrativo tendrá efectos desestimatorios.
- g) Izapideak kontzentratzea.
- g) Concentración de trámites.
- h) Prozesu masiboak erabiltzea.
- h) La utilización de procesos masivos.
- i) Jarduketak automatizatzea.
- i) La automatización de actuaciones.
- j) Izapidetze-eskuliburuak eta zerbitzuen eta prozeduren gidak eta protokoloak eta erabiltzaileentzako euskarri- eta laguntza-sistemak argitaratzea.
- j) La publicación de manuales de tramitación y de guías o protocolos de los servicios y procedimientos y sistemas de soporte y ayuda para las personas usuarias.
- k) Nahitaezkoak eta lotesleak ez diren txostenak gutxitzea.
- k) La reducción de informes no preceptivos ni vinculantes.
- l) Txostenak bateratzea eta, hala badagokio, ezabatzea; edo, bestela, txostenen ordeztasunak edo ikus-onespenak baliatzea.
- l) La unificación de informes, con eliminación o sustitución, en su caso, por propuestas o visados.

m) Jakinarazpenetarako iragarki-taula elektronikoa gehiago erabiltzea.

m) El incremento del uso de los tablones electrónicos de anuncios para las notificaciones.

n) Tasak eta zergak bitarteko elektronikoen bidez bidaltzea, jakinaraztea eta ordaintzea.

n) El envío, la notificación y el pago de tasas e impuestos por vía electrónica.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak Administrazioa Sinplifikatzeko Eskuliburua onartuko du, non ezarriko baita zer jarraibide eta irizpide metodologiko aplikatuko zaizkien artikulua honetan jasotako neurri mota guztiei, eta, bereziki, administrazio-kargak neurtzeko eta murrizteko direnei.

4. La Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi aprobará el Manual para la Simplificación Administrativa, que establecerá las pautas y criterios metodológicos para todos los tipos de medidas contemplados en el presente artículo y, específicamente, para la medición de cargas administrativas y su reducción.

35. artikulua. Koordinazio- eta lankidetzatresnak.

Artículo 35. Instrumentos de coordinación y colaboración.

1. Administrazio Elektronikorako Aholku Batzordearen esparruan gauzatuko da EAEko administrazio publikoek Administrazioa sinplifikatzeko arloan izan beharreko lankidetzeta eta parte-hartzea; batzorde hori Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 73. artikuluan arautzen da.

1. El Consejo Asesor de la Administración Electrónica regulado en el artículo 73 de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco es el marco de cooperación y participación entre las administraciones públicas vascas en materia de simplificación administrativa.

2. EAEko sektore publikoko entitateek koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko tresnak eta mekanismoak sustatuko dituzte elkarrekin, helburu hauek lortzeko:

2. Las entidades del sector público vasco promoverán entre sí instrumentos y mecanismos de coordinación y colaboración para:

a) Sektore, gai eta kolektibo espezifikoetako zerbitzuak eta prozedurak sinplifikatzea.

a) La simplificación de servicios y procedimientos de sectores, materias y colectivos específicos.

b) Gune komunak ezartzea, eta zerbitzu elektronikoa batera ematea.

b) La implantación de espacios comunes y la prestación conjunta de servicios electrónicos.

c) Jarduera sozioekonomikoetan esku hartzeko ahalmenak batera erabiltzea, administrazio-sinplifikazioa eta arintasuna bultzatzeko prozedurak izapidetzean eta proiektu zehatzak edo sektore espezifikoetakoak egikaritzean, eta herritarren eskubideak izapidetzeko eta aitortzeko eta zerbitzu publikoetara irispidea izateko administrazio-prozedura oro arin

c) El ejercicio conjunto de facultades de intervención sobre actividades socioeconómicas, con el fin de impulsar la simplificación administrativa y la agilidad en la tramitación de procedimientos y ejecución de proyectos concretos o de sectores específicos, o la ágil resolución de cualesquiera procedimientos administrativos de tramitación y reconocimiento de derechos y acceso a los servicios públicos de la ciudadanía,

ebaztea, hurrengo artikuluetan aurreikusten diren mekanismoen bidez.

mediante los mecanismos previstos en los siguientes artículos.

II. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO-KARGAK MURRIZTEKO NEURRIAK

CAPITULO II. MEDIDAS DE REDUCCION DE CARGAS ADMINISTRATIVAS

1. atala. Betekizunak egiaztatzeko jarduketak.

Sección 1ª. Actuaciones de comprobación y verificación de requisitos.

36. artikulua. Dokumentuak ez aurkezteko eskubidea gauzatzea.

Artículo 36. Materialización del derecho de no aportación de documentos.

1. Administrazioak bete egingo du administrazio-prozeduretako interesdunek administrazio publikoen esku dauden edo aplikatu beharreko araudiak eskatzen ez dituen datu eta dokumentuak ez aurkezteko duten eskubidea, zeina Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 69.2.g) artikuluan eta lege honen 11.2.f) artikuluan aitortzen baita.

1. La Administración hará efectivo el derecho de las personas interesadas en los procedimientos administrativos a no aportar datos ni documentos que obren en poder de las Administraciones Públicas o que no sean exigidos por la normativa aplicable, reconocido en el artículo 69.2.g) de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco y en el artículo 11.2.f) de la presente Ley.

Aurreko apartatuan xedatutakoa betetzeko, organo kudeatzaileek elektronikoki bilduko dituzte prozedura ebazteko behar diren datuak edo dokumentuak, ingurune itxietan datuak trukatzeko informazio-sistemaren bidez edo datu-bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoko batzuetan kontsulta eginez, salbu eta interesduna horren aurka agertzen bada; halakoetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako baldintzak eta ondorioak aplikatuko dira.

A fin de dar cumplimiento a lo dispuesto en el apartado anterior, los órganos gestores recabarán electrónicamente, a través del sistema de información de intercambio de datos en entorno cerrado o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, los datos o documentos necesarios para la resolución del procedimiento, salvo que el interesado se opusiera a ello, en los términos y con los efectos regulados en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

2. Administrazio-prozedura bakoitzean, interesdunei jakinaraziko zaie eskubidea dutela dagoeneko Administrazioaren esku dagoen dokumentazioa ez aurkezteko, eta, ildo horretan, prozeduran behar diren datuak edo dokumentuak Administrazioak kontsultatu, bildu eta egiaztatuko dituela.

4. Akreditazioa lortzeko, gutxienez betekizun hauek bete behar dituzte entitate eskatzaileek:

4. Para obtener la acreditación las entidades solicitantes deberán cumplir, como mínimo, los siguientes requisitos:

a) Profesional gaituak izatea. Hain zuzen ere, erregelamendu bidez zenbat profesional dauden ezarrita kasuan kasuko jardueraren eremuan ziurtapen-entitate laguntzaileen berezko eginkizunak betetzeko, hainbeste profesional izan beharko dira, eta lanbidearen berezko lanetan esperientzia profesional eraginkorra izan beharko dute; esate baterako, obra-proiektuak egiten edo zuzentzen, edo eraikuntzei, eraikinei eta instalazioei buruzko txosten edo irizpen teknikoak idazten.

a) Contar con profesionales habilitados en el número que se determinen reglamentariamente para ejercer las funciones propias de las entidades colaboradoras de certificación en el ámbito de actividad de que se trate y con experiencia profesional efectiva plasmada en trabajos propios de la respectiva profesión, tales como proyectos o dirección de obras o de informe o dictamen técnicos sobre construcciones, edificaciones, instalaciones, entre otros.

b) Ez izatea galdua entitate laguntzailearen izaera eta ez izatea debekatua lege honetan araututako ziurtapen-jarduera egitea, ebazpen administratibo edo judicial irmo baten bidez.

b) No haber perdido la condición de entidad colaboradora ni tener prohibido el desarrollo de la actividad de certificación regulada en esta Ley en virtud de resolución administrativa o judicial firme.

c) Erantzukizun profesionalaren ondoriozko arriskuak estaltzeko poliza harpidetua eta indarrean izatea, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

c) Tener suscrita y en vigor póliza de cobertura de los riesgos por responsabilidad profesional en los términos que se determinen reglamentariamente.

d) Jarduera gauzatzea eragozten duen konkurtso-goieran ez egotea.

d) No encontrarse en situación de concurso que impida el ejercicio de su actividad.

e) Zer jardueratan bete behar dituzten eginkizunak, jarduera horietako

e) Los requisitos específicos que puedan establecerse para cada actividad en la que hayan de ejercer sus funciones.

bakoitzerako ezar daitezkeen betekizun espezifikoak betetzea.

f) Erregelamendu bidez zehazten diren betekizun gehigarriak betetzea.

5. Erantzukizunpeko adierazpen baten bidez frogatu ahal izango da entitate laguntzaile gisa akreditatzeko gutxieneko betekizunak betetzen direla, garapeneko erregelamendu-araudian ezartzen denaren arabera.

6. Akreditazio-betekizunen bat betetzeari utziz gero, galdu egingo da akreditazioa, kontraesaneko espedienteak izapidetu ondoren.

7. Entitate izendatuek ematen dituzten zerbitzuak aplikatzekoa den araudi sektorialaren arabera ordaindu ahal izango dira.

8. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean administrazio publikoaren arloko eskumena duen sailari dagokio ziurtapen-entitate laguntzaileak izendatzea, betiere gaiaren arabera eskumena duen sailak edo EAEko sektore publikoko dagokion entitateak proposatuta.

50. artikulua. Ziurtapen-entitate laguntzaileen betebeharrak.

1. Ziurtapen-entitate laguntzaileek betebehar hauek izango dituzte, garapeneko erregelamendu-arautik eratortzen diren gainerakoak ezertan eragotzi gabe:

a) Egindako ziurtagirien erregistro iraunkor bat sortzea eta mantentzea, Administrazioarekiko elkarrengarria izango dena.

b) Dagozkien eginkizunetatik eratortzen diren espedienteak eta dokumentazioa gordetzea, kontsultatzeko moduko formatu batean, konfidentzialtasuna bermatuz, informazioaren segurtasunari eta datu

f) Los requisitos adicionales que se determinen reglamentariamente.

5. Los requisitos mínimos para la acreditación de las entidades de colaboración podrán demostrarse mediante declaración responsable, en los términos que se establezca en la normativa reglamentaria de desarrollo.

6. El incumplimiento sobrevenido de cualesquiera de los requisitos de acreditación determinará la pérdida de la acreditación, previa tramitación de expediente contradictorio.

7. La prestación de servicios por las entidades designadas podrán ser retribuidos de acuerdo con la normativa sectorial aplicable.

8. La designación de entidades colaboradoras de certificación corresponderá al departamento competente en materia de administración pública de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a propuesta del departamento competente por razón de la materia o entidad del sector público vasco correspondiente.

Artículo 50. Obligaciones de las entidades colaboradoras de certificación.

1. Sin perjuicio de las demás obligaciones que se deriven de la norma reglamentaria de desarrollo, las entidades colaboradoras de certificación deberán:

a) Crear y mantener un registro permanente de las certificaciones que emitan interoperable con la Administración.

b) Mantener los expedientes y la documentación derivada de sus funciones en formato que permita su consulta, garantizando la confidencialidad en cumplimiento de lo

pertsonalen babesari buruzko araudian ezarritakoa betez.

establecido en la normativa sobre seguridad de la información y protección de datos de carácter personal.

c) Lege honen 52. artikuluan arautzen den Ziurtapen Entitate Laguntzaileen Erregistroko inskripzioa justifikatu zuten betekizunei eta baldintzei eustea, bai eta horien ondoriozko betebeharreri ere.

c) Mantener los requisitos y condiciones que justificaron su inscripción en el Registro de Entidades Colaboradoras de Certificación regulado en el artículo 52, incluyendo las obligaciones que estos comportan.

d) Inskripzio-ebazpenean jasotako baldintzak eta lege honetan, legedia sektorialean eta hura garatzeko xedapenetan ezarritakoak betetzea.

d) Cumplir las condiciones contenidas en la resolución de inscripción y las establecidas en esta Ley, la legislación sectorial y sus disposiciones de desarrollo.

e) Indarrean dagoen araudian ofizialki onartutako metodoak, sistemak eta baliabide materialak erabiltzea, edo akreditazioko entitate ofizialak egiaztatuak dituenak edo, halakorik ezean, kaudimen aitortuko nazioko edo nazioarteko organismoek bere egindakoak, behar bezala eguneratuta edo berrituta badaude.

e) Emplear los métodos, sistemas y medios materiales oficialmente aprobados en la normativa en vigor, aquellos acreditados por entidad oficial de acreditación o, en su defecto, los adoptados por organismos nacionales o internacionales de reconocida solvencia, siempre debidamente actualizados o renovados.

f) Dagozkien eginkizunak betetzeko gaitasun eta legitimazio nahikoa duten langileak izatea, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

f) Disponer del personal con capacidad y legitimación suficientes para ejercer las funciones que les corresponden, en los términos que se establezcan reglamentariamente.

2. Ziurtapen-entitate laguntzaileek eta horko langileek beren eginkizunak garatzean eta betetzean lortzen duten informazioaren konfidentzialtasuna bermatu beharko dute. Betebehar hori ez betetzea arau honetan aurreikusitako erregistro-inskripzioa errebokatzeke arrazoia izango da, hargatik eragotzi gabe lege hau eta datuak babesteko legeak aplikatuz egokiak diren zehapenak ezartzea.

2. Tanto las entidades colaboradoras de certificación como su personal deberán garantizar la confidencialidad respecto de la información que obtengan en el desarrollo y ejecución de sus funciones. El incumplimiento de esta obligación será considerado como causa de revocación de la inscripción en el Registro previsto en esta norma, sin perjuicio de las sanciones que le puedan corresponder en aplicación de la presente ley y la legislación de protección de datos.

51. artikulua. Bateriaezintasunak eta erantzukizuna.

Artículo 51. Incompatibilidades y responsabilidad.

1. Ziurtapen-entitate laguntzaileek ezingo dute pertsona, entitate edo enpresa hauekin harreman juridikorik izan: beren eginkizunak betetzeko kontratatzen dituztenekin, edo

1. Las entidades colaboradoras de certificación no podrán tener relación jurídica con las personas, entidades o empresas que los contraten para ejercer

beren iritzia lotutako jarduerak edo proiektuak diseinatzeko edo gauzatzen parte hartzen dutenekin, baldin eta horrek mendekotasuna edo interes-gatazka eragiten badu eta horrek, ondorioz, ziurtagiri-entitate laguntzailearen objektibotasunari eta irizpide-independentsiari edonola eragin badiezaioke.

Mendekotasuna dagoela ulertuko da, sektore publikoaren araubide juridikoaren legedian jasota dauden abstentzio- eta errekusatzeko-arrazoak gertatzen direnean, gutxienez.

2. Batera ezintasun-baldintza berberak eskatuko zaizkie zuzenean edo zeharka ziurtagiri-eginkizunetan jardun dezaketen profesional elkargokideei.

3. Ziurtagiri-entitate laguntzaileak ematen dituzten ziurtagiriaren erantzule izango dira, eta lege honetan aurreikusitako zehapen-araubidearen mende geratuko dira.

4. Bi entitate laguntzailek edo gehiagok batera jarduten badute, ziurtagiri nagusia ematen duen entitatea ziurtagiri osagarriak ematen dituztenekiko erantzule solidarioa izango da. Ziurtagiri osagarriak ematen dituzten entitateak, berriz, soilik haiek egindako ziurtagiriaren erantzule izango dira.

5. Ziurtagiri-entitate laguntzaileak izendatu dituzten organo edo entitateek, edo haien izendapenen gaineko nahitaezko txostenak egin dituztenek, entitate laguntzaile horiek ikuskatu beharko dituzte aldizka.

52. artikulua. Ziurtagiri-entitate laguntzaileen erregistroa.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko Ziurtagiri Entitate Laguntzaileen Erregistro Orokorra sortzen da; han inskribatuko dira 48. artikuluan araututako dokumentu-akreditazioaren ziurtagiriaren araubidean izendatzen diren entitateak.

sus funciones, o con las que participen en el diseño o ejecución de la actividad o proyecto sujeto a su consideración, que pueda producir dependencia, subordinación o conflicto de intereses que, en cualquier forma, pueda afectar a su objetividad e independencia de criterio.

Se considerará que existe tal dependencia, al menos, cuando concurren las causas de abstención y recusación previstas en la legislación de régimen jurídico del sector público.

2. Esta incompatibilidad será exigida en idéntica forma a los profesionales colegiados que directa o indirectamente pudieran actuar en funciones de certificación.

3. Las entidades colaboradoras de certificación serán responsables de los certificados que emitan, quedando sometidas al régimen sancionador previsto en esta Ley.

4. Cuando dos o más entidades colaboradoras actúen conjuntamente, la entidad que emita el certificado principal será solidariamente responsable con las que emitan los accesorios. Las que emitan los certificados accesorios serán responsables únicamente de los certificados que emitan.

5. Los órganos y entidades que hayan designado o informado preceptivamente la designación de las entidades colaboradoras de certificación deberán realizar inspecciones periódicas de estas.

Artículo 52. Registro de entidades colaboradoras de certificación.

1. Se crea el Registro General de Entidades Colaboradoras de Certificación del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el que se inscribirán las entidades designadas en el

régimen de certificación documental acreditada regulado en el artículo 48.

Erregistroa publikoa izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek Interneten dituzten atari korporatiboetan jarriko da irispidean.

El registro será público y estará accesible en los portales corporativos en Internet de las entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2. Erregistroan inskribatzeak ez du ezertan aldatuko ziurtapen-entitate laguntzaileek aurrez zuten izaera juridikoa.

2. La inscripción en el registro no alterará la naturaleza jurídica previa de las entidades colaboradoras de certificación.

3. Erregistro-inskripzioaren gehieneko indarraldiak ezin du izan bost urtetik gorakoa. Epe hori igarotakoan, berriro eskatu beharko da inskribatzea.

3. El plazo máximo de vigencia de la inscripción en el registro no podrá ser superior a cinco años. Transcurrido este plazo, deberá solicitarse una nueva inscripción.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak ezarriko du, erregelamendu bidez, zer betekizun eta prozedura bete behar diren ziurtapen-entitate laguntzaileak akreditatzeko eta izendatzeko eta entitate horiek erregistroan inskribatzeko; halaber, erregistroaren funtzionamendua ezarriko du.

4. Reglamentariamente, la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi establecerá los requisitos y el procedimiento de acreditación y designación de las entidades colaboradoras de certificación e inscripción de estas en el Registro, así como el funcionamiento de este.

Erregistro-inskripzioa ofizioz egingo da, akreditazio-ebazpena eman ondoren.

La inscripción en el Registro se realizará de oficio al emitir la resolución de acreditación.

III. KAPITULUA. ADMINISTRAZIOA SINPLIFIKATZEKO BARNE-NEURRIAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAN.

CAPÍTULO III. MEDIDAS INTERNAS DE SIMPLIFICACIÓN ADMINISTRATIVA EN EL SECTOR PÚBLICO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.

53. artikulua. Prozesu bidezko kudeaketa.

Artículo 53. Gestión por procesos.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek prozesu bidezko kudeaketa sustatuko dute, modu estandarizatu eta dokumentatua jarduteko, atazak, denborak, dokumentuak eta arduradunak normalizatuta, haien berrikuspena eta berringeniaritza ziurtatzeko, ahalik eta administrazio-sinplifikazio handiena lortzea helburu, zerbitzu publikoa etengabe hobetzearen eta kalitatearen esparruan.

Las entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi fomentarán la gestión por procesos de forma estandarizada y documentada, con normalización de tareas, tiempos, documentos y personas responsables, de forma que se asegure su revisión y reingeniería encaminada a la mayor simplificación administrativas posible en el marco de la mejora continua y calidad del servicio público.

54. artikulua. Prozeduren programazioa eta herritarrei arreta eskaintzea.

Zerbitzu eta prozeduretan eskumena duten administrazio-organismoek Zuzenean-ekin – Herritarrentzako arreta-zerbitzuarekin– koordinatuko dituzte zerbitzu eta prozedura horien garapenaren programazioa eta aurreikuspenak, herritarren eskariei kanal guztietan izango duten eragina eta gerta daitezkeen gorabehera administratibo eta teknologikoak aurreikusteko.

Artículo 54. Programación de procedimientos y atención a la ciudadanía.

Los órganos administrativos competentes en los servicios y procedimientos coordinarán con el servicio de atención a la ciudadanía, Zuzenean, la programación y previsiones del desarrollo de estos, para prever el impacto de la demanda de la ciudadanía en los diferentes canales y las posibles incidencias administrativas y tecnológicas.

55. artikulua. Administrazio-organismoen arteko komunikazioak.

Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 20.6 artikuluz bat, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko administrazio-organismoen arteko komunikazio hauek bitarteko elektronikoen bidez egingo dira zuzenean, izapidetze elektronikorako plataforma komunean:

- a) Kontsultak.
- b) Dokumentazio-, azterlan- eta proiektu-eskaerak.
- c) Administrazio-espedienterik gabeko txosten-eskaerak.
- d) Helarazteak eta jakinarazteak.
- e) Zirkularrak, jarraibideak eta zerbitzu-aginduak.

Artículo 55. Comunicaciones entre los órganos administrativos.

De conformidad con el artículo 20.6. de la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco, la comunicación entre los órganos administrativos del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi se efectuará directamente a través de medios electrónicos, en la plataforma común de tramitación electrónica:

- a) Las consultas.
- b) Las solicitudes de documentación, estudios y proyectos.
- c) Las solicitudes de informes sin expediente administrativo.
- d) Los traslados y puestas en conocimiento.
- e) Las circulares, instrucciones, órdenes de servicio.

56. artikulua. Datuak eta informazioa erabiltzea.

1. Datuak funtsezkoak eta aktibo estrategikoa direla aitortzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren gobernantzaren, berrikuntzaren eta eraldaketa digitalaren oinarri gisa, bai eta politika eta zerbitzu publikoak kudeatzeko orduan lan egiteko eta erabakiak hartzeko prozesuen ardatz gisa ere, sektore publiko eta gobernu efizienteagoa lortzeko,

Artículo 56. Uso de los datos y de la información.

1. Se reconoce el carácter esencial y de activo estratégico de los datos como fundamento de la gobernanza, la innovación, y la transformación digital del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi y eje de los procesos de trabajo y toma de decisiones en la gestión de políticas y servicios públicos, para lograr un sector público y

herriarrei zerbitzu hobea eskaintzeko eta berrikuntza, produktibitatea eta garapen ekonomikoa bultzatzeko.

gobierno más eficientes, ofrecer mejor servicio a la ciudadanía e impulsar la innovación, productividad y el desarrollo económico.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko sailek eta sektore publikoko entitateek dagozkien jarduerak egitean lortzen dituzten datuak eta informazioa aktibo estrategiko gisa eratuko dira, eta balio publikoa sortzeko eta herritarren onura lortzeko babestu eta kudeatuko dira. Azken helburu horrekin, gainerako sail eta entitateek beren eskumenak gauzatzeko erabili ahal izango dituzte haietako edozeinek lortutako datuak eta informazioa, beste eskubide eta ondasun juridiko batzuk errespetatuz eta, betiere, datuak babesteari, gardentasunari eta informazioa eskuratzeari eta estatistikari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

2. Los datos y la información que los departamentos y entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi obtengan en el desarrollo de su actividad se configurarán como tal activo estratégico que se protegerá y gestionará para la creación de valor público y el beneficio de la ciudadanía. Con este fin último, los datos e información obtenidos por cualquiera de aquellos podrán ser utilizados por el resto de los departamentos y entidades, para el ejercicio de sus competencias, con el necesario respeto a otros derechos y bienes jurídicos y siempre de conformidad con lo establecido por el marco de la normativa vigente de protección de datos, transparencia y acceso a la información, y estadística.

3. Administrazioak aktibo hori erabiltzea bultzatuko du, prozesuak, zerbitzuak eta prozedurak arintzeko eta automatizatzeko, proaktibitatea eta horien pertsonalizazioa bultzatzeko eta datuetan oinarritutako erabakiak hartzeko, datuak irekiak izan eta berrerabil daitezzen sustatuz, "ahal bezain irekia eta behar bezain itxia" printzipio orokorraren pean.

3. La Administración potenciará el uso de dicho activo para la agilización y automatización de los procesos, servicios y procedimientos, para la proactividad y personalización de estos y para la toma de decisiones basadas en datos, potenciando la apertura de datos y su reutilización, bajo el principio general de "tan abierto como sea posible y tan cerrado como sea necesario".

57. artikulua. Enplegatu publiko digitalak

Artículo 57. Personal empleado público digital

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren antolamendu-diseinuak herritarren behar berrien sorrerari eta teknologia berrien aplikazioari erantzungo die, eta beharrezkoak diren lanbide-profil berriak txertatzen direla zainduko du.

1. El diseño organizacional del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi atenderá al surgimiento de las nuevas necesidades de la ciudadanía y a la aplicación de las nuevas tecnologías, velando por la incorporación de los nuevos perfiles profesionales necesarios.

2. Lanpostua espazio fisiko eta birtualizat hartu behar da, eta urrunetik aritzeko formulak edo mugikortasuna duten postuak sustatuko dira.

2. El puesto de trabajo debe ser entendido como espacios físico y virtual, potenciando fórmulas de su ejercicio a distancia o puesto en movilidad.

3. Lanpostuen monografiak etengabe eguneratu beharko dira, kontuan hartuta, besteak beste, aurrerapen teknologikoak, zerbitzuen eta prozeduren digitalizazioa, horren ondoriozko prozesuen eguneratzea eta eskatzen diren konpetentzia berriak. Eta hori, bi dimentsiotan

a) Atazak kentzea automatizatzeagatik edo digitalizatzearen ondorioz lanpostuan duten gutxieneko ponderazioagatik.

b) Eskatutako gaitasun berriak.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten subjektuek enplegatu publikoak arlotan digitalizazioa eta administrazio-simplifikazioan etengabe gaitzeko planak bultzatuko dituzte, bai eta zerbitzu publikoen etengabeko hobekuntzaren printzipioa aplikatuz sortzen diren teknologia berrien erabileran gaitzekoak ere.

Prestakuntza horretan, lehentasuna emango zaie, bereziki, arauak egiteko prozesuan parte hartzen duten enplegatu publikoei eta funtzionario gaituei.

5. Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak, bere eskumenen esparruan, zeharkako oinarritzko prestakuntza-ibilbideak diseinatuko ditu, eta ibilbide horiek prestakuntza-kredituak lortzea ekarri ahal izango dute.

6. Gobernu digitala ezartzeko eta hedatzeko, komunikazio- eta prestakuntza-baliabideak landuko dira, eta informazio- eta komunikazio-sistemen erabiltzaileei laguntzeko sistemak ezarriko dira, bai eta izapidetze elektronikorako plataformak ere.

3. Las monografías de los puestos de trabajo deberán estar permanentemente actualizadas atendiendo, entre otras cuestiones, a los avances tecnológicos, la digitalización de los servicios y procedimientos y la actualización de procesos subsecuente, en dos dimensiones:

a) La eliminación de tareas por su automatización o por su mínima ponderación en el puesto de trabajo derivada de su digitalización.

b) Las nuevas competencias requeridas.

4. Los sujetos integrantes del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi potenciarán los planes de capacitación permanente del personal empleado público en materia digital y simplificación administrativa, así como en la utilización de las nuevas tecnologías que vayan surgiendo en aplicación del principio de mejora continua de los servicios públicos.

Se priorizará en esta formación especialmente al personal empleado público que participe en el proceso de elaboración de las normas, y al personal funcionario habilitado.

5. El Instituto Vasco de Administración Pública diseñará, en el ámbito de su competencia, itinerarios formativos básicos transversales que podrán sustanciarse en la obtención de créditos formativos

6. Para la implementación y despliegue del gobierno digital se elaborarán recursos de comunicación y formación, y se establecerán los sistemas de ayuda y apoyo a las personas usuarias de los sistemas de información y comunicación, así como de las plataformas de tramitación electrónica.

IV. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO- PROZEDURA ARINTZEKO ETA ARRAZIONALIZATZEKO NEURRIAK

CAPÍTULO IV. MEDIDAS DE AGILIZACIÓN Y RACIONALIZACIÓN DEL PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO

58. artikulua. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak bere formatuak eta funtzionalitateak eguneratuko ditu, herritarren beharizan berrien arabera; besteak beste, hauek egingo ditu:

- a) Arau-testuetan hiperesteka aktiboak sartu, zehazki arau-erreferentzietan.
- b) Lokalizatzaileak ikusteko aukera eskaini.
- c) Geolokalizazioa eskaini enplegu publikoaren eskaintzetan.
- d) Lizitazioetarako sarbidea eman.
- e) Egoitza elektronikoko deskripzio-fitxarako sarbidea eman, administrazio-izaerako zerbitzuen kasuan.
- f) RSS harpidetzak egiteko aukera eskaini.

59. artikulua. Eskaeren aurkezpen masiboa.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak eskaera-multzoak aurkezteko ereduak eta sistemak prestatu beharko ditu, interesdunek aukera izan dezaten aldi berean eskaera bat baino gehiago aurkezteko.

Eskatzaileek nahi adina datu erantsi ahal izango dute, eskaera-ereduan jasotakoak zehazteko eta osatzeko, eta organo hartzaileak onartu eta kontuan izan beharko ditu.

2. Eredu horiek, betiere borondatez erabiltzekoak, eskuragarri egongo dira dagozkien egoitza elektronikoetan eta erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.

Artículo 58. Boletín Oficial del País Vasco.

El Boletín Oficial del País Vasco actualizará sus formatos y funcionalidades a las nuevas necesidades de la ciudadanía, procediendo, entre otros a:

- a) La inclusión de hipervínculos activos en los textos normativos y, en concreto, entre referencias de normas.
- b) La visualización de localizadores.
- c) La geolocalización en las ofertas de empleo público.
- d) Los accesos a licitaciones.
- e) El acceso a la ficha descriptiva en sede electrónica en el caso de los servicios de carácter administrativo.
- f) Las suscripciones RSS.

Artículo 59. Presentación masiva de solicitudes.

1. El sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi establecerá modelos y sistemas de presentación masiva que permitan a las personas interesadas presentar simultáneamente varias solicitudes.

Los solicitantes podrán acompañar los elementos que estimen convenientes para precisar o completar los datos del modelo, los cuales deberán ser admitidos y tenidos en cuenta por el órgano al que se dirijan.

2. Estos modelos, de uso voluntario, estarán a disposición en las correspondientes sedes electrónicas y en

las oficinas de asistencia en materia de registros.

60. artikulua. Ebazteko epeak eta epeen ebaluazio iraunkorra.

1. Prozedura bati buruzko ebazpen espresua jakinarazteko gehieneko epea gaia erregulatzen duen arauan zehaztutakoa izango da. Epe hori ezin izango da hiru hilabetetik gorakoa izan, Estatuko oinarritzko araudian ezarritakoaren arabera zenbatuta.

2. Salbuespen gisa, epe luzeagoa jarri ahal izango da, sei hilabetera artekoa, lege-mailako arau baten bidez, interes orokorreko arrazoi erabatekoengatik. Lege-mailako arauaren justifikazio-memoriak berariaz zehaztu beharko ditu proposatzen den epea justifikatzen duten interes orokorreko arrazoiak, eta interes orokorrei eragindako kalteak zein diren zehaztu eta interesdunen interes legítimoekin haztatu beharko ditu.

3. Prozedurei dagozkien arauetan ezarrita ez badago, hiru hilabete izango da gehieneko epea.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak, kasu bakoitzean zehazten den aldizkakotasunarekin, ebaluatuko ditu bere eskumeneko espedienteak izapidetzeko batez besteko denborak, eta bidegabeko atzerapenak eta haien kausak identifikatuko ditu, araudiarekin zerikusia dutenak izan, edo kudeaketakoak izan.

5. Ebaluazioa honako hauen arabera egingo da: zerbitzu- eta prozedura-familia; saila; administrazio-organo eskuduna, eta zerbitzu publikoak etengabe hobetzeko diagnostiko hobea egiten laguntzen duen beste edozein irizpide.

Artículo 60. Plazos de resolución y evaluación permanente de plazos.

1. El plazo máximo en el que debe notificarse la resolución expresa de un procedimiento será el establecido por su norma reguladora. Este plazo no podrá exceder de tres meses computados conforme a lo establecido en la normativa básica estatal.

2. Excepcionalmente, podrá establecerse un plazo superior, hasta seis meses, mediante norma con rango de ley por razones imperiosas de interés general. La memoria justificativa de la norma con rango de ley deberá concretar expresamente las razones de interés general que justifiquen el plazo que se proponga, especificando y ponderando los daños para los intereses generales con los legítimos intereses de las personas interesadas.

3. Cuando las normas reguladoras de los procedimientos no fijen el plazo máximo, éste será de tres meses.

4. El sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi evaluará, con la periodicidad que se determine en cada caso, los tiempos medios de tramitación de los expedientes de su competencia, identificando dilaciones indebidas y sus causas, sean estas regulatorias o de gestión.

5. La evaluación se realizará discriminando por familia de servicio y procedimiento, departamento, órgano administrativo competente y cualquier otro criterio que contribuya al mejor diagnóstico para la mejora continua de los servicios públicos.

61. artikulua. Administrazio-isiltasunaren ondorioak interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan.

1. Arau orokor gisa, hargatik eragotzi gabe ebazpen espresua emateko betebeharra, interesdunak eskaturik hasitako prozedura guztietan, gehieneko epea igaro bada interesdunari ebazpena jakinarazi gabe, hura legitimatuta egongo da ebazpen hori administrazio-isiltasunaren bidez baietsi dela ulertzeko.

2. Arau orokorraren salbuespen dira prozedura hauek:

a) Zuzenean aplikatzekoa den edo oinarritzekoa den lege-mailako estatu-arau baten edo Europar Batasuneko zuzenbideko arau baten arabera, isiltasunari ezespen-balioa eman behar dioten prozedurak.

Prozeduraren xedea jarduera baterako irispidea izatea edo jarduera horretan aritzea denean, isiltasunak balio ezeslea duela xedatzen duen legeak interes orokorreko arrazoi erabatekoetan oinarritu beharko du.

b) Konstituzioaren 29. artikulua aipatzen duen eskariak egiteko eskubidea baliatzearekin zerikusia duten prozedurak.

c) Baiestearen ondorioz eskatzaileari edo hirugarrenei jabari publikoaren edo zerbitzu publikoaren gainerako ahalmenak transferituko lizkieketen prozedurak.

d) Ingurumenari edo historia- eta kultura-ondareari kalte egin diezaioketen jarduerak egitea dakarten prozedurak.

e) Administrazio publikoen ondare-erantzukizuneko prozedurak.

f) Egintzak eta xedapenak aurkaratzeko prozedurak. Hala ere, epea igarotzeagatik eskaera bat administrazio-isiltasunez ezetsi izanaren aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen bada, baietsizat joko da ebazpen-

Artículo 61. Efectos del silencio administrativo en procedimientos iniciados a solicitud de la persona interesada.

1. Como regla general, sin perjuicio de la obligación de dictar resolución expresa, en todos los procedimientos iniciados a solicitud de la persona interesada, el vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado ésta, legitima a la persona interesada para entenderla estimada por silencio administrativo.

2. Se exceptúan de la regla general los siguientes procedimientos:

a) Aquellos en los que una norma estatal con rango de ley, cuando sea de directa aplicación o básica, o una norma de derecho de la Unión Europea establezcan lo contrario.

Cuando el procedimiento tenga por objeto el acceso a actividades o su ejercicio, la ley que disponga el carácter desestimatorio del silencio deberá fundamentarse en la concurrencia de razones imperiosas de interés general.

b) Los relativos al ejercicio del derecho de petición a que se refiere el artículo 29 de la Constitución.

c) Aquellos cuya estimación tuviera como consecuencia que se transfirieran, al solicitante o a terceros, facultades relativas al dominio público o al servicio público.

d) Los que impliquen el ejercicio de actividades que puedan dañar el medio ambiente o el patrimonio histórico y cultural.

e) Los de responsabilidad patrimonial de las Administraciones públicas.

f) Los de impugnación de actos y disposiciones. No obstante, cuando se haya interpuesto recurso de alzada contra la desestimación por silencio administrativo de una solicitud por el

epea heldutakoan eskumena duen administrazio-organoak ebazpen espresua eman eta jakinarazi ezean, non eta ez den aurreko b) letratik e) letra bitartean zehaztutako gaiei buruzkoa.

transcurso del plazo, se entenderá estimado el mismo si, llegado el plazo de resolución, el órgano administrativo competente no dictase y notificase resolución expresa, siempre que no se refiera a las materias enumeradas en las letras b) a e) anteriores.

g) Ofizioz berrikusteko prozedurak, interesdunek eskaturik hasi direnak.

g) Los de revisión de oficio iniciados a solicitud de las personas interesadas.

h) Tributu-betebeharpekoaren eskubideak edo beste egoera juridiko indibidualizatu batzuk aitortzea edo, hala badagokio, eratzea ekar dezaketen tributu-prozedurak, hargatik eragotzi gabe tributuak aplikatzeko prozedura bakoitza erregulatzen duen araudian aurreikusitako ondorioak.

h) Los procedimientos tributarios de los que pudiera derivarse el reconocimiento o, en su caso, la constitución de derechos u otras situaciones jurídicas individualizadas del obligado tributario, sin perjuicio de los efectos previstos en la normativa reguladora de cada procedimiento de aplicación de los tributos.

i) Langileei buruzko arloan eskubideak edo beste egoera juridiko indibidualizatu batzuk aitortzea edo, hala badagokio, eratzea ekar dezaketen prozedurak.

i) Los procedimientos en materia de personal de los que pudiera derivarse el reconocimiento o, en su caso, la constitución de derechos u otras situaciones jurídicas individualizadas.

3. Salbuespenez, interes orokorreko arrazoi erabatekoak direla-eta, lege-mailako arau baten bidez ere ezarri ahal izango da isiltasunak ezespina dakarrela. Arrazoi horiek berariaz zehaztu beharko dira arauaren justifikazio-memorian, eta interes orokorreari eragindako kalteak zein diren zehaztuko da eta hartzaileen interes legítimoekin haztatu.

3. Excepcionalmente, podrá también establecerse el sentido desestimatorio del silencio mediante norma con rango de ley por razones imperiosas de interés general, que deberán ser concretadas explícitamente en la memoria justificativa de la norma, especificando los daños para los intereses generales ponderándolos con los legítimos intereses de las personas destinatarias.

4. Administrazio-isiltasunez baiestea, ondorio guztietarako, prozedura amaitzen duen administrazio-egintzat joko da. Administrazio-isiltasunez ezestearen ondorio bakarra zera izango da: interesdunek aukera izatea bidezko den administrazio-errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko.

4. La estimación por silencio administrativo tiene a todos los efectos la consideración de acto administrativo finalizador del procedimiento. La desestimación por silencio administrativo tiene los solos efectos de permitir a la persona interesada la interposición del recurso administrativo o contencioso-administrativo que resulte procedente.

5. Administrazio-isiltasunez egindako administrazio-egintzak edozeinen aurrean baliarazi ahalko dira, dela Administrazioan dela edozein pertsonaren aurrean, fisiko nahiz juridiko, publiko nahiz pribatu. Egintza

5. Los actos administrativos producidos por silencio administrativo se podrán hacer valer tanto ante la Administración como ante cualquier persona física o jurídica, pública o privada. Los mismos

horiek ondorioak dituzte ebazpen espresua emateko eta jakinarazteko gehieneko epea ebazpenik eman gabe igarotzen denetik, eta egintza horien existentzia egiazta daiteke zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bitartez, isiltasunaren ziurtagiria barne.

Ziurtagiri hori ofizioz emango du ebazteko eskumena duen organoak, hamabost eguneko epean, prozedura ebazteko gehieneko epea amaitzen denetik aurrera zenbaturik. Nolanahi ere, interesdunak noiznahi eskatu ahal izango du ziurtagiria, eta, aipatutako epea zenbatzeko, ebazteko eskumena duen administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan eskaera sartu den egunaren biharamuna hartuko da lehen eguntzat.

6. Ebazpen espresua eman beharra honako araubide honi atxikiko zaio:

a) Administrazio-isiltasunez baiesten den kasuetan, egintzaren ondorengo ebazpen espresua hura berresteko baino ezin da izan.

b) Administrazio-isiltasunez ezesten den kasuetan, epea igaro ondorengo ebazpen espresua emateko orduan, Administrazioarentzat ez da loteslea isiltasunaren esanahia.

62. artikulua. Administrazio-isiltasunaren ondorioak ofizioz hasitako prozeduretan.

1. Ofizioz hasitako prozeduretan, gehieneko epean ebazpen espresua eman eta jakinarazi ez izateak ez du Administrazioa salbuesten ebazteko betebeharrak legezkotik, eta hauek izango dira ondorioak:

a) Eskubideak edo aldeko beste egoera juridikoren batzuk aitortzea edo, hala badagokio, eratzea ekar dezaketen prozeduretan, agertu diren interesdunek

producen efectos desde el vencimiento del plazo máximo en el que debe dictarse y notificarse la resolución expresa sin que la misma se haya expedido, y su existencia puede ser acreditada por cualquier medio de prueba admitido en Derecho, incluido el certificado acreditativo del silencio producido.

Este certificado se expedirá de oficio por el órgano competente para resolver en el plazo de quince días desde que expire el plazo máximo para resolver el procedimiento. Sin perjuicio de lo anterior, la persona interesada podrá pedirlo en cualquier momento, computándose el plazo indicado anteriormente desde el día siguiente a aquél en que la petición tuviese entrada en el registro electrónico de la Administración u Organismo competente para resolver

6. La obligación de dictar resolución expresa se adaptará al siguiente régimen:

a) En los casos de estimación por silencio administrativo, la resolución expresa posterior a la producción del acto sólo podrá dictarse de ser confirmatoria del mismo.

b) En los casos de desestimación por silencio administrativo, la resolución expresa posterior al vencimiento del plazo se adoptará por la Administración sin vinculación alguna al sentido del silencio.

Artículo 62. Efectos del silencio administrativo en procedimientos iniciados de oficio.

1. En los procedimientos iniciados de oficio, el vencimiento del plazo máximo establecido sin que se haya dictado y notificado resolución expresa no exime a la Administración del cumplimiento de la obligación legal de resolver, produciendo los siguientes efectos:

a) En el caso de procedimientos de los que pudiera derivarse el reconocimiento o, en su caso, la constitución de derechos u otras situaciones jurídicas favorables,

administrazio-isiltasunez ezetsizat jo ditzakete beren uziak.

las personas interesadas que hubieren comparecido podrán entender desestimadas sus pretensiones por silencio administrativo.

b) Administrazioa zehatzeko ahalez edo, oro har, esku hartzeko ahalez baliatzen den prozeduretan, interesdunei ondorio kaltegarria edo zorra sorraz badieziaieke, iraungitzea izango da ondorioa.

b) En los procedimientos en que la Administración ejercite potestades sancionadoras o, en general, de intervención, susceptibles de producir efectos desfavorables o de gravamen, se producirá la caducidad.

2. Prozedura interesdunari inputa lekioken arrazoiren bategatik geldiarazi den kasuetan, ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa ere gelditu egingo da.

2. En los supuestos en los que el procedimiento se hubiera paralizado por causa imputable la persona interesada, se interrumpirá el cómputo del plazo para resolver y notificar la resolución.

63. artikulua. Izapideak kontzentratzea

Artículo 63. Concentración de trámites

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 72.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, egintza bakar batean erabakiko dira izaera dela-eta batera bultza daitezkeen eta bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapide guztiak.

1. De conformidad con el artículo 72.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se procederá a la evacuación conjunta y en un solo acto de todos los trámites que, por su naturaleza, admitan un impulso simultáneo y cuyo cumplimiento sucesivo no sea obligado.

2. Zehazki, honako hauek aldi berean eskatuko dira, epe berean eta bitarteko elektronikoen bidez:

2. En particular, se solicitarán simultáneamente, en el mismo plazo y a través de medios electrónicos:

a) Erregelamendu bidez sartutako txosten guztiak edo funtsezkoak ez direnak.

a) Todos los informes introducidos por vía reglamentaria o que no tengan un carácter esencial.

b) Organo espezializatuei edo administrazio publikoetako sailei beraiei egindako kontsultak.

b) Las consultas a órganos especializados o a los propios departamentos de las Administraciones públicas.

c) Gaia dela-eta prozedura berezietan exijitzen diren txostenak eta kontsultak, baldin eta prozedura-arau espezifikoek ez badute berariaz eskatzen bata bestearen ondoren edo beste une batean betetzea.

c) Los informes y consultas exigidos en los procedimientos especiales por razón de la materia y cuyas normas procedimentales específicas no requieran expresamente su cumplimiento sucesivo o en un momento diferente.

3. Izapideak egiteko eginkizuna dutenek ofizioz egin beharko dituzte izapideak, aurretik eskabidea egin beharra egon gabe

3. Los trámites se cumplimentarán de oficio por quienes los tengan atribuidos, sin necesidad de su solicitud previa, y a la

eta soilik espedientea –bere txosten, azterlan eta memoria eta guzti– aintzat hartuta. Izapide guztiak batera egingo dira, hamar eguneko epe berean.

vista únicamente del expediente con sus informes, estudios y memoria. Se realizarán todos de un modo simultáneo y durante el mismo plazo común de diez días.

Aipatutako epe amankomuna igarota, funtsezkoak ez diren izapideak ez betetzeak ez du prozedura geldiaraziko, eta ondoko tramiteak aurrera eramango dira horiek gabe, aurreikusitako moduan.

Una vez transcurrido el plazo común citado, la falta de cumplimentación de trámites que no sean esenciales no supondrá la paralización del procedimiento, que se seguirá en su ausencia y por su orden, con la evacuación de los trámites subsiguientes.

Zilegi izango da epetik kanpo emandako txostenak kontuan ez hartzea dagokion ebazpena onartzeko orduan. Nolanahi ere, salbuespenez eta, betiere, organo informatzaileak epe amankomunaren barruan berariaz eta modu argudiatuan eskatu badu, instrukzioaren ardura duen organoak luzapen bat eman ahal izango dio organo horri bere txostena emateko, hasieran emandako epe amankomunaren erdia bestekoa. Luzapen horrek ez du prozedura geldiaraziko.

Los informes emitidos fuera de plazo podrán no ser tenidos en cuenta al adoptar la correspondiente resolución. No obstante, excepcionalmente, cuando el órgano informante lo haya solicitado expresamente y de forma motivada dentro del plazo común, el órgano encargado de la instrucción podrá conceder a dicho órgano una prórroga de hasta la mitad de la duración del plazo común inicialmente conferido para la emisión de dicho concreto informe. La prórroga conferida no supondrá la paralización del procedimiento.

4. Informazio publikoaren izapidea eta eragindako beste administrazio publiko batzuei nahiz pertsona interesdunei egindako kontsulten izapidea aldi berean egingo dira, eta, ahal dela, artikulua honen 2. apartatuko txostenak eskatzearekin batera.

4. Los trámites de información pública, de consultas a otras administraciones públicas afectadas y a las personas interesadas se realizarán de modo simultáneo y, preferentemente, también con la solicitud de los informes del apartado 2 de este artículo.

Arintasun-printzipioa betez, EAEko administrazio publikoen arteko komunikazioak eta kontsultak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira.

En cumplimiento del principio de agilidad, las comunicaciones y consultas entre las administraciones públicas vascas se realizarán por medios electrónicos.

64. artikulua. Txosten sektorialak.

Artículo 64. Informes sectoriales.

1. Organo batek administrazio-prozedura berari buruz txostena egin behar badu ondorio bat baino gehiagorako, txosten bakar bat egingo du, iritzia eman behar duen alderdi guztiak jasoko dituen, salbu eta eremu bakoitzerako eskatzen den eta aurkeztu den dokumentazioan funtsezko aldaketak badaude.

1. En el caso en que un órgano hubiera de emitir informe a varios efectos sobre un mismo procedimiento administrativo, emitirá únicamente un informe que abarque los distintos aspectos sobre los que deba pronunciarse, salvo en los supuestos en que existan modificaciones

sustanciales en la documentación aportada que se exija para cada ámbito.

2. Egin beharreko txosten sektorialak ez dira elkarren segidakoak izango, eta, beraz, beste organo sektorial batek aldeztu aurretik egindako txostenak ez du baldintzatuko txosten bat egitea, salbu eta izapide bat aurrekoaren ondorio edo hurrengoaren kausa denean edo aplikatu beharreko arauan hala ezartzen denean.

2. Los informes sectoriales que deban emitirse no tendrán carácter sucesivo, de tal forma que la emisión de un informe no estará condicionada por la expedición previa del informe de otro órgano sectorial, salvo aquellos casos en los que un trámite sea consecuencia del anterior o causa del siguiente o así se establezca en la norma de aplicación.

Nolanahi ere, ezin izango da ebatzen eman aldeztu aurretik nahitaezko txostenak egin gabe.

En todo caso, no podrá dictarse resolución sin la previa emisión de los informes preceptivos.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek egin behar dituzten txosten guztiak elektronikoki eskatu eta bidaliko dira izapidetze elektronikorako plataforma komun bidez, eta plataforma horiek elkarrengarriak izatea bilatuko da.

3. Todos los informes que deban emitir las entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi se solicitarán y remitirán electrónicamente a través de las plataformas comunes de tramitación electrónica procurando la interoperabilidad de estas.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 26. artikuluan adierazitako baldintzak beteko dituzte txostenek, eta hamar eguneko epean egingo dira, salbu eta xedapenen batek edo prozeduraren gainerako epeak betetzeak epe luzeago edo laburragoren bat ahalbidetzen edo eskatzen badu.

Los informes cumplirán con los requisitos que señala el artículo 26 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y serán evacuados en el plazo de diez días, salvo que una disposición o el cumplimiento del resto de los plazos del procedimiento permita o exija otro plazo mayor o menor.

65. artikulua. Txostenak eta irizpenak emateko epea.

Artículo 65. Plazo de emisión de informes y dictámenes.

1. Administrazio-prozedura batean, gehien ere hamar eguneko epea egongo da txostenak eta irizpenak emateko, Estatuko edo Europar Batasuneko araudiak beste epe bat ezartzen duenean izan ezik.

1. El plazo máximo para la emisión de informes y dictámenes en un procedimiento administrativo será de diez días, excepto cuando la normativa estatal o de la Unión Europea establezca otro plazo.

2. Administrazio-prozedura bat ebatzeko beharrezkoak diren nahitaezko txostenak eta irizpenak emateko ezarritako gehieneko epea igarotzen bada hura emateko eskumena duen organoak berariazko eta arrazoitutako erabakirik eman gabe, prozeduraren jarduerekin jarraitu ahal izango da, baina ezin izango da ebatzen eman

2. Transcurrido el plazo máximo fijado para la emisión de los informes y dictámenes preceptivos necesarios para la resolución de un procedimiento administrativo sin pronunciamiento expreso y motivado del órgano competente para su emisión, se podrán proseguir las actuaciones del

aldez aurretik nahitaezko txostenak egin gabe. Hori guztia, hargatik eragotzi gabe oinarritzko araudian ebazteko gehieneko epea eteteari buruz xedatutakoa eta interesdunek eskaturik hasitako prozeduretarako isiltasunaren esanahia.

3. Administrazio-prozedura bat izapidetzeko gehieneko epea eten behar bada nahitaezko barne-txostenak egin behar direlako, espediente zehatza ebatzi behar duen organoaren ebazpen espresu bidez erabakiko da.

4. Artikulu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko ekonomia- eta finantza-txostenei, ez eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak eta Lan Harremanen Kontseiluak egin behar dituzten txosten edo irizpenei ere, araudi espezifikoak bete beharko baitute.

66. artikulua. Administrazio-jarduketa automatizata edo algoritmikoa eta berehalako erantzunekoa.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak egintzak erabaki eta jarduketak egin ahal izango ditu modu automatizatuan, bitarteko elektronikoen bidez, arlo horretako araudi espezifikoaren arabera eta, nolana ere, datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudiaren arabera.

jasota utzi beharko da interesdunaren borondate argia, bitarteko elektronikoen bidez aise eskuratzeko moduko prozedura erraz baten bidez.

información exigida por dicha normativa. A tal efecto se deberá dejar constancia de la voluntad inequívoca de la persona interesada a través de un procedimiento sencillo y fácilmente accesible por medios electrónicos.

Datuak tratatzeko, beharrezkoak diren segurtasun-neurriak hartu beharko dira, bat etorritik Segurtasunaren Eskema Nazionalen administrazio elektronikoen esparrurako xedatutakoarekin eta datu pertsonalak babesteko araudian ezarritakoarekin.

El tratamiento exigirá la adopción de las medidas de seguridad necesarias conforme a lo dispuesto en el Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la administración electrónica y en la normativa en materia de protección de datos de carácter personal.

Interesdunek tratatzen ari diren datuetara irispidea izan dezakete, eta jakin ahal izango dute zer tresna erabiltzen diren zerbitzua pertsonalizatzeko. Gainera, edozein unetan kendu ahal izango dute emandako adostasuna.

Las personas interesadas podrán acceder a los datos que están siendo tratados y qué herramientas se utilizan para personalizar el servicio y tendrán derecho a retirar su consentimiento en cualquier momento.

5. Interesdunek noiznahi erabaki eta komunikatu ahal izango dute, Herritarren Karpeta bidez, sektore publiko autonomikoak zerbitzu pertsonalizatu proaktiboak ematea nahi dutela edo emateari uztea nahi dutela.

5. Las personas interesadas podrán decidir y comunicar, en cualquier momento y a través de la Carpeta ciudadana, su voluntad para que el sector público autonómico les preste, o les deje de prestar, servicios proactivos personalizados.

6. Herritarrekin harremana izateko dauden kanalen bidez, eskuragarri dauden zerbitzu proaktibo eta pertsonalizatuak berri emango da.

6. A través de los diferentes canales de relación con la ciudadanía se dará publicidad a los servicios proactivos y personalizados que estén disponibles.

7. Borondatezko harpidetza izango duten alerter zerbitzu pertsonalizatuak eskainiko dira, zeinak modu automatizatuan sortuko baitira, eskura dituzten datuetatik abiatuta.

7. Se ofrecerán servicios de alerta personalizados de suscripción voluntaria que se generarán de manera automatizada a partir de los datos que obren en su poder.

Hartzaileak emandako helbidera bidaliko dira mezuak, eta helbide hori administrazio-egintzen jakinarazpenak jasotzeko adierazitako bera izan daiteke.

Los mensajes serán remitidos a la dirección que proporcione la persona destinataria, que podrá ser la misma que se hubiese indicado para la recepción de notificaciones de actos administrativos.

Alertek hauen berri emango dute: izapide edo jarduketa bat egiteko epea ireki dela, hartzailearentzat interesgarria izan daitekeen prozedura bat hasi dela edo, hala

Las alertas informarán acerca de la apertura del plazo para realizar un trámite o actuación, la iniciación de un procedimiento que pudiera resultarle de

badagokio, eremu material jakin batean informazio garrantzitsua eman dela.

interés o, en su caso, de información relevante en un concreto ámbito material.

Hala dagokionean, mezuan zuzeneko esteka bat jarriko da, dagokion zerbitzuak edo prozedurak aipatzen duen jarduketa egiteko edo izapidea betetzeko helbidera iristeko.

Cuando sea procedente, los mensajes incorporarán un enlace directo a la dirección en la que pueda cumplimentarse el trámite o realizarse la actuación a la que se refiera el correspondiente servicio o procedimiento.

5. 62. artikulua 1. apartatua aldatzen da – artikulua hori Herritarren Karpeta eta interesdunek prozeduraren izapidetze-egoerara irispidea izateari buruzkoa da–, eta honela geratzen da idatzita:

5. Se modifica el apartado 1 del artículo 62 sobre Carpeta Ciudadana y acceso de las personas interesadas al estado de tramitación del procedimiento, que queda redactado de la forma siguiente:

Egoitza elektronikoa dagoen Herritarren Karpeta da pertsonen eta entitatearen arteko harreman elektronikorako espazio pertsonal eta bakarra, zerbitzu publikoak osorik emateko eta alderdi interesduna den prozedura guztietako espedienteetara irispidea izateko, modu seguru, oso eta konfidentzialean.

La Carpeta Ciudadana de la sede electrónica constituye el espacio personal y único de relación electrónica de las personas con ésta, para la prestación integral de servicios públicos y acceso a los expedientes de todos los procedimientos en los que es parte interesada; de forma segura, íntegra y confidencial.

Espedienteak bitarteko horren bidez irispidean izango dituzte bost urtez, amaiera-datatik zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren, espedienteak ez dira ikusgai egongo, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Artxibo Sistemaren kontsultatu ahal izango dira, baldin eta lege onartutako kontserbazio-egutegiak betez ezabatu ez badira. Interesdunak horren berri jasoko du aldez aurretik.

El acceso a los mismos estará disponible por este medio durante cinco años contados desde su fecha de fin. Una vez transcurrido ese plazo, los expedientes dejarán de ser visibles y podrán ser consultados en el Sistema de Archivo del Sector Público de la Comunidad Autónoma del País Vasco, siempre y cuando no hayan sido objeto de eliminación, en cumplimiento de los calendarios de conservación aprobados legalmente. La persona interesada recibirá un aviso de tal circunstancia con antelación.

6. 62. artikulua 4. apartatuari letra batzuk gehitzen zaizkio –artikulua hori Herritarren Karpeta eta interesdunek prozeduraren izapidetze-egoerara irispidea izateari buruzkoa da–, eta honela geratzen dira idatzita:

6. Se añaden nuevas letras al apartado 4 del artículo 62 sobre Carpeta Ciudadana y acceso de las personas interesadas al estado de tramitación del procedimiento, con el siguiente literal:

g) Espedienteari dokumentuak gehitzeko aukera.

g) Aportar documentos al expediente.

h) Harremanetarako datuetara irispidea izateko aukera, 90. artikuluan araututako

h) Acceder a sus datos de contacto como usuaria de los servicios públicos que

datu-basean agertzen diren zerbitzu publikoen erabiltzaile gisa, eta datu horiek aldatzeko aukera.

i) Emandako adostasunetara irispidea izateko aukera.

j) Administrazio publikoak emandako txartelak, txartel pertsonalak eta egiaztatzeko moduko beste kredentzial batzuk irispidean izateko aukera, zerbitzu jakin batzuetarako sarbidearekin edo jarduerak egitearekin lotuta daudenak.

k) Mezu-zentrora sartzeko aukera. Zentro horrek abisatuko du zer aldaketa edo sarbide egin diren abian diren datu edo espedienteetan, zer ekintza egin behar dituen erabiltzaileak epe labur edo ertainean, zer deialdi izan daitezkeen haren interesekoak, etab.

l) Beste pertsona batzuek dokumentuak biltegiratzeko eta erabiltzeko aukera: administrazio-dokumentuak eta informazio pertsonala modu seguruan eta borondatez gordetzea, kudeatzea eta partekatzea, baimendutako hirugarrenek erabili ahal izan ditzaten. Une oro bermatuko da eskubide digitalak errespetatzen zaizkiola eta bere informazioa erabat kontrolatzen duela, eta baimenak ematea eta ezeztatzea interesdunaren esku soilik egongo da.

m) Informazioa eta zerbitzu pertsonalizatuen eskaintza modu proaktiboan jasotzeko aukera, dekretu honen 56. artikuluan araututakoaren arabera.

7. 62. artikuluari apartatu batzuk gehitzen zaizkio –artikulu hori Herritarren Karpetari eta interesdunek prozeduraren izapidetze-egoerara irispidea izateari buruzkoa da–, eta honela geratzen dira idatzita:

6. Herritarren Karpetari lotutako egoitza elektronikoaren titular den administrazioa izango da karpetaren kudeaketaren eta funtzionamendu onaren arduraduna.

figuran en la base de datos regulada en el artículo 90 y modificarlos.

i) Acceder a los consentimientos otorgados.

j) Acceder a los carnés, tarjetas personales y otras credenciales verificables emitidas por la Administración pública y vinculadas al acceso a determinados servicios o realización de actividades.

k) Acceder al centro de mensajes, que avisará de cambios o accesos realizados a sus datos o expedientes en curso, de acciones que la persona usuaria deba realizar en el corto/medio plazo, avisos de convocatorias que puedan ser de su interés, etc.

l) Almacenar y usar documentos por parte de otras personas: guardar, gestionar y compartir de forma segura y voluntaria sus documentos administrativos e información personal, con el objetivo de permitir su uso por parte de terceros autorizados. En todo momento se garantizará el respeto a sus derechos digitales y el pleno control sobre su información, de modo que la autorización y revocación de permisos permanezca exclusivamente en manos de la persona interesada.

m) Recibir información y oferta de servicios personalizados de forma proactiva, regulada en el artículo 56 del presente Decreto.

7. Se añaden nuevos apartados al artículo 62 sobre sobre Carpeta Ciudadana y acceso de las personas interesadas al estado de tramitación del procedimiento, con el siguiente literal:

6. La Administración titular de la sede electrónica vinculada a la Carpeta Ciudadana será la responsable de su gestión y buen funcionamiento.

Entitate bakoitzaren ardura izango da bere egoitza elektronikoaren bidez eta bere eskumenak baliatuz eskaintzen dituen informazioaren eta zerbitzuen osotasuna, egiazkotasuna eta eguneraketa bermatzea, baita zerbitzu pertsonalizatuena ere, eta datu pertsonalak babesteko araudia erabat errespetatzea. Baldin eta informazioak eta zerbitzuek beste administrazio edo entitate publiko batzuen eskumenak baliatzearekin zerikusia badute, administrazio edo entitate horiek izango dira haien erantzuleak.

Corresponderá a cada entidad garantizar la integridad, veracidad y actualización de la información y de los servicios, incluidos aquellos personalizados, que se ofrecen a través de esta en ejercicio de sus competencias con pleno respeto a la normativa en protección de datos personales. Cuando la información y los servicios guarden relación con el ejercicio de las competencias de otras Administraciones o entidades públicas serán éstas las responsables.

7. Herritarren Karpeta gaien eta bizitzako gertaeren arabera egituratuko da, bai pertsona fisikoen kasuan, (jaiotzak, ikasketak, enplegua, erretiroa, beste lurralde batera lekualdatzea), bai pertsona juridikoen kasuan (enpresa bat sortzea, dirulaguntzak edo zerga-pizgarriak eskatzea), eta informazioa eta izapideak haien beharrekin bat etorri antolatzeak aukera emango du.

7. La Carpeta Ciudadana adoptará un enfoque estructurado por temas y hechos vitales de las personas físicas (como nacimientos, estudios, empleo, jubilación, traslado a otro territorio) y de las personas jurídicas (creación de una empresa, solicitud de subvenciones o incentivos fiscales) y permitirá organizar la información y los trámites de manera coherente con sus necesidades.

Nolanahi ere, Herritarren Karpetaren edukia egituratzeko beste etiketa pertsonalizagarri batzuk sortzeko aukera sustatuko da.

En cualquier caso, se fomentará la posibilidad de creación de otras etiquetas personalizables para la estructuración del contenido de la Carpeta Ciudadana.

8. Herritarren Karpetako informazioa erabiltzailearen profilen arabera jasoko da: interesduna, ordezkaria, langile publiko profesionala, autonomia, etab.

8. La Carpeta Ciudadana incluirá la información atendiendo a los posibles distintos perfiles de la persona usuaria: interesada, representante, personal público profesional, autónomo, etc.

9. Administrazioak sortu dituen eta Herritarren Karpetan eskuragarri dauden dokumentuetan, egiaztapen-kode segurua eta egiaztapen-helbide elektronikoa agertuko dira.

9. En los documentos generados por la Administración disponibles en la Carpeta Ciudadana constará su código seguro de verificación y la dirección electrónica de verificación.

10.– Egoitza elektronikoko Herritarren Karpetaren bidez emandako zerbitzuak gailu mugikorren bidez ere eskuragarri egon ahal izango dira, betiere segurtasun-, elkarreragingarritasun- eta irisgarritasun-baldintzak betez.

10. Los servicios prestados a través de Carpeta Ciudadana de la sede electrónica podrán estar igualmente disponibles por medio de dispositivos móviles, cumpliendo en todo caso los requisitos de seguridad, interoperabilidad y accesibilidad.

8. 80. artikuluari 7. apartatua gehitzen zaio – artikulua hori ahalordeen erregistro

8. Se añaden un nuevo apartado 7 al artículo 80 sobre el Registro Electrónico

elektronikoari buruzkoa da—, eta honela geratzen da idatzita:

Ahalordeen erregistroen konfigurazioak eta funtzionamenduak datu pertsonalak babesteari buruzko araudian jasotako eskakizunak bete beharko dituzte. Arreta berezia jarriko zaie segurtasun-neurri egokiei eta datuen tratamenduari buruzko printzipioei. Hain zuzen ere, printzipio horiek benetan betetzen direla jasota geratu beharko da.

9. 63. artikulua 1. apartatua aldatzen da —artikulu hori datu-transmisioei eta administrazio-espedientei buruzkoa da—, eta honela geratzen da idatzita:

Euskadiko Administrazio Publikoen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoa (NISAE) da EAEko sektore publikoko administrazio eta entitateen datu-bitartekaritzarako plataforma komuna, nodo autonomiko gisa eratua, haien artean eta gainerako administrazio publikoekin datuak elektronikoki trukatzeko.

Plataforma hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoan administrazio elektronikoaren eskumena duen administrazio-organismoak kudeatuko du, eta hark emango ditu plataformak eskainitako zerbitzuetara irispidea izateko baimenak. Halaber, organismo horrek ahalmena izango du dagozkion kontrol- eta gainbegiratze-jarduketak egiteko, modu horretan egiaztatzeko lagatako informazioa eta aplikatzekoak diren arauzko edo hitzarmenezko baldintzak behar bezala lortzen eta erabiltzen direla.

10.— 63. artikulua 4. apartatua aldatzen da —artikulu hori datu-transmisioei eta administrazio-espedientei buruzkoa da—, eta honela geratzen da idatzita:

de Apoderamientos, con el siguiente literal:

La configuración y funcionamiento de los registros de apoderamientos habrá de respetar las exigencias contempladas por la normativa sobre protección de datos de carácter personal. En particular se prestará especial atención a las medidas de seguridad adecuadas y a los principios relativos al tratamiento de los datos, de cuyo efectivo cumplimiento deberá quedar constancia.

9. Se modifica el apartado 1 del artículo 63 sobre transmisiones de datos y expedientes administrativos, que queda redactado de la forma siguiente:

El Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones públicas de Euskadi, NISAE constituye la plataforma común de intermediación de datos de las Administraciones y entidades del sector público vasco, constituida como nodo autonómico para implementar el intercambio electrónico de datos entre ellas y el resto de las Administraciones públicas.

Dicha plataforma será gestionada por el órgano administrativo competente en Administración electrónica de la Administración Pública la Comunidad Autónoma de Euskadi, quien otorgará las autorizaciones para el acceso a los servicios proporcionados por la plataforma, que estará, asimismo, facultado para las actuaciones de control y supervisión que procedan con el fin de verificar la adecuada obtención y utilización de la información cedida y de las condiciones normativas o convencionales que resulten de aplicación.

10. Se modifica el apartado 4 del artículo 63 sobre transmisiones de datos y expedientes administrativos, que queda redactado de la forma siguiente:

Lehendik Administrazio publikoren baten esku dauden datuak eta dokumentuak honela aurkeztuko dira:

a) Prozedura izapidetzen duen administrazio-organoak berak sartuko ditu datuak edo dokumentuak prozeduran, baldin eta datu edo dokumentu horiek badauzka edo haietara irispide elektronikoa badauka.

b) Prozedura izapidetzen duen administrazio-organoak datuak edo dokumentuak ez badauzka, transmititu egin beharko dira, modu automatizatuan edo ez-automatizatuan, eta behar diren datuak jasota utziko dira edo haien trazabilitatea zehaztuko da; alderdi hauek ere zehaztuko dira: informazioa eskatzeko oinarri juridikoa; eskaera hori justifikatzen duen interesa; espediente-zenbakia, edo irispidearen legitimitatea babesteko erregelamendu bidez defini daitezkeen beste alderdi batzuk ere.

Ahal dela, datuak dituen organoari eskatuko dizkio, eta elektronikoki eskuratu beharko ditu, datu-bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuetan kontsulta eginez. Organo lagatzailearen fitxategietan jasota geratu behar du organo lagapen-hartzailea datu edo dokumentu horietan sartu dela.

Hori ezinezkoa bada, bide korporatiboak erabiliz eskatuko ditu, eta informazioa formatu elektronikoan bidali beharko da espedienteari kopia autentiko bat erantsi behar zaionean, gehienez ere hiru egun balioduneko epean.

c) Salbuespen gisa, prozedura izapidetzen duen administrazio-organoak ezin baditu datuak edo dokumentuak lortu, interesdunari jakinarazi eta arrazoia azalduko dio, berak aurkez ditzan, kasuan kasuko prozeduraren arau erregulatzailean adierazitako epean eta ondorioekin.

La aportación de datos y documentos que ya se encuentren en poder de cualquier Administración Pública se realizará en los siguientes términos

a) Si el órgano administrativo que tramita el procedimiento posee los datos o documentos o tiene acceso electrónico a los mismos, los incorporará al expediente.

b) Si el órgano administrativo que tramita el procedimiento no posee los datos o documentos, se sustituirá por su transmisión de forma automatizada o no, dejando constancia o trazabilidad de los datos que se necesitan, así como la base jurídica en virtud de la cual se solicita la información, el interés que lo justifica, el número de expediente u otros aspectos que puedan definirse reglamentariamente para preservar la legitimidad del acceso.

Preferentemente los solicitará al órgano que los tenga, debiendo recabarlos electrónicamente mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto. En los ficheros del órgano cedente quedará constancia del acceso a los datos o documentos efectuado por el órgano cesionario.

Si ello no fuera posible, se solicitará a través de los cauces corporativos y la información se enviará en formato electrónico cuando sea preciso incorporar al expediente una copia auténtica en el plazo máximo de tres días hábiles.

c) Si, excepcionalmente, el órgano administrativo que tramita el procedimiento no puede obtener los datos o documentos, lo comunicará a la persona interesada, con indicación del motivo, para que los aporte en el plazo y con los efectos previstos en la norma reguladora del procedimiento correspondiente.

Halaber, salbuespen gisa, interesdunari eskatu ahal izango dio jatorrizko dokumentua aurkezteko, edo aurkeztutako kopiak eratzeko; horretarako, jatorrizko dokumentua erakutsi beharko du, administrazio-prozeduraren legeetan xedatutakoarekin bat etorritz.

También con carácter excepcional podrá requerir a la persona interesada la presentación del documento original, o el cotejo de las copias que hayan sido aportadas mediante la exhibición del documento original, conforme a lo dispuesto en la legislación de procedimiento administrativo.

11.– 63. artikulua 6. apartatua aldatzen da –artikulu hori datu-transmisioei eta administrazio-espedientei buruzkoa da–, eta honela geratzen da idatzita:

11. Se modifica el apartado 6 del artículo 63 sobre transmisiones de datos y expedientes administrativos, que queda redactado de la forma siguiente:

Plataforma bidez datuak biltzeko eta egiaztapenak egiteko lana, ahal dela, modu automatizatuan egingo da, behar bezala segurtatutako kanal elektronikoak erabilita, hau da, bitarteko elektronikoen bidez osorik egindako kontsulta baten bidez eta enplegatu publiko batek ere zuzenean esku hartu gabe.

La obtención de los datos o la realización de las verificaciones a través de la plataforma se realizará preferentemente de manera automatizada.. -a través de canales electrónicos debidamente securizados, entendiéndose por tal la consulta realizada íntegramente a través de medios electrónicos en la que no haya intervenido de forma directa una empleada o empleado público.

12.– 63. artikulua 7. apartatua aldatzen da –artikulu hori datu-transmisioei eta administrazio-espedientei buruzkoa da–, eta honela geratzen da idatzita:

12. Se modifica el apartado 7 del artículo 63 sobre transmisiones de datos y expedientes administrativos, que queda redactado de la forma siguiente:

Datuen transmisioek hauen babesa izan beharko dute: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6. artikulua –erregelamendu horrek datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen ditu eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen du– eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

Las transmisiones de los datos deberán estar amparadas en el artículo 6 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales

13. 60. artikulua 1. apartatuari bigarren paragrafoa gehitzen zaio –artikulu hori eredu elektroniko normalizatuari buruzkoa da–, eta honela geratzen da idatzita:

13. Se añade un segundo párrafo al apartado 1 del artículo 60 sobre modelos electrónicos normalizados, con el siguiente literal:

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko dokumentuak irizpide

La normalización documental del sector público de la Comunidad Autónoma de

homogeneoen arabera normalizatuko dira, haien irisgarritasuna eta erabilgarritasuna bermatzeko eta herritarrek eta enplegatu publikoek aise eta zuzen erabil ditzaten errazteko.

Euskadi responderá a criterios homogéneos que aseguren su accesibilidad y usabilidad, y favorezcan la fácil y correcta utilización por la ciudadanía y el personal empleado público.

14. 60. artikulua 2. apartatuari bigarren paragrafoa gehitzen zaio –artikulu hori eredu elektroniko normalizatuari buruzkoa da–, eta honela geratzen da idatzita:

14. Se añade un segundo párrafo al apartado 2 del artículo 60 sobre modelos electrónicos normalizados, con el siguiente literal:

Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, interesdunak betekizun hori betetzen ez badu, hamar eguneko epea emango zaio atzemandako akatsa zuzentzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 73.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera, hurrenez hurren, prozedura hasteko eskaera denean edo beste egintza bat denean. Hala egiten ez badu, ebazpena emango da, lege horren 21. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, eta interesdunak eskaeran atzera egin duela ulertuko da, edo dagokion izapiderako eskubidea galdu duela deklaratu da, hurrenez hurren.

De acuerdo con lo establecido en el Real Decreto 203/2021, de 30 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de actuación y funcionamiento del sector público por medios electrónicos, si este incumple dicho requisito se le requerirá para que, en el plazo de diez días, subsane el defecto advertido en los términos establecidos en los artículos 68.1 y 73.2. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las Administraciones públicas, cuando se trate de una solicitud de iniciación y cuando se trate de otro acto respectivamente. Si así no lo hiciera y previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de dicha ley, se le tendrá por desistido de su solicitud o se le podrá declarar decaído en su derecho al trámite correspondiente, respectivamente.

15. 60. artikulua 3. apartatua aldatzen da –artikulu hori eredu elektroniko normalizatuari buruzkoa da–, eta honela geratzen da idatzita:

15. Se modifica el apartado 3 del artículo el artículo 60 sobre modelos electrónicos normalizados, que queda redactado de la forma siguiente:

Formulario eta dokumentu normalizatuak prestatzeko, administrazio elektronikoen edo herritarrentzako arretaren gaineko eskumena duen organoaren jarraibideak beteko dira –kasuaren arabera dagozkionak–; egoitza elektronikoa, web formatuan egongo dira eskuragarri une oro formulario eta dokumentu normalizatu horiek, eta irisgarriak izango dira, hala nahi duenak aurrez aurre aurkeztu ahal izateko. Nolanahi ere, erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan ere eskuragarri egongo dira formularioak.

Los formularios y documentos normalizados se elaborarán conforme a las instrucciones del órgano competente en Administración electrónica o en atención a la ciudadanía, según corresponda; estarán en soporte web disponibles en todo momento en la sede electrónica y serán accesibles para su posible presentación presencial. No obstante, los formularios estarán disponibles también en las Oficinas de Asistencia en Materia de Registro.

16. 60. artikulua 4. apartatua aldatzen da –artikulu hori eredu elektronikoko normalizatuei buruzkoa da–, eta honela geratzen da idatzita:

Zerbitzuak eta prozedurak erregulatzeko arauak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen direnean, herritarrak egoitza elektronikora soilik bideratuko dira, han egongo baita zerbitzuaren/prozeduraren fitxa deskribatzailea, izapidetze elektronikora irispidea izateko edo formularioak online betetzeko aukera emango duena, gero formularioak aurrez aurre aurkezteko; hau da, ez da ereduaren irudi estatikorik edo eranskinik argitaratuko.

17. 60. artikulua 6. apartatuaren c) letra aldatzen da –artikulu hori eredu elektronikoko normalizatuei buruzkoa da–, eta honela geratzen da idatzita:

Formulario eta eskabide elektronikoen aurrez osorik edo zati batean beteta eskaintzea, dagokion izapidea edo jarduketa egiteko behar diren datuak izanez gero edo, hala badagokio, modu automatizatuan lortu ahal izanez gero.

Behin jarduketa edo izapidea egingo duen interesdunaren nortasuna egiaztatuta, haren esku jarriko dira beharrezkoak diren datu guztiak, beti berma dadin interesdunak datuak egiaztatzeko eta osatzeko eta egokitzat jotzen dituen aldaketak egiteko duen eskubidea.

18. 60. artikulua 7. apartatua aldatzen da –artikulu hori eredu elektronikoko normalizatuei buruzkoa da–, eta honela geratzen da idatzita:

Formulario eta dokumentu normalizatuak bi hizkuntza ofizialetan egongo dira eskuragarri, hizkera argian idatzita, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta, besteak beste, honako hauek jasoko dituzte:

a) Jakinarazpen edo komunikazio elektronikoenetarako kanala aukeratzeko

16. Se modifica el apartado 4 del artículo el artículo 60 sobre modelos electrónicos normalizados, que queda redactado de la forma siguiente:

La publicación de las normas regulatorias de los servicios y procedimientos en el Boletín Oficial del País Vasco dirigirá exclusivamente a la sede electrónica, donde se encuentra la ficha descriptiva del servicio / procedimiento que da acceso a la tramitación electrónica o la cumplimentación online de los formularios para su presentación presencial, evitando la inclusión de imágenes estáticas y anexos de los modelos.

17. Se modifica la letra c) del apartado 6 del artículo el artículo 60 sobre modelos electrónicos normalizados, que queda redactado de la forma siguiente:

Ofrecer la cumplimentación previa de los formularios y solicitudes electrónicas, en todo o en parte, cuando disponga de los datos necesarios para la realización del correspondiente trámite o actuación o, en su caso, pueda obtenerlos de manera automatizada.

Una vez verificada la identidad de la persona interesada que va a realizar la actuación o el trámite se pondrán a su disposición todos los datos necesarios, garantizándose en todo caso su derecho a verificar, completar y realizar las modificaciones que considere oportunas.

18. Se modifica el apartado 7 del artículo el artículo 60 sobre modelos electrónicos normalizados, que queda redactado de la forma siguiente:

Los formularios y documentos normalizados estarán disponibles en los dos idiomas oficiales y redactados en lenguaje claro de conformidad con lo establecido en el artículo 12 e incluirán, entre otros:

a) *La elección del canal de notificación o comunicación electrónica, cuando las*

atala, baldin eta aplikatu behar diren arauak ez badute kanal elektronikoa erabiltzera behartzen; jakinarazpen- edo komunikazio-abisua jasotzeko datuak emateko atala, eta komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak eraginkorrak izateko beharrezkoak diren eremuak ematekoa.

b) Administrazio publiko beraren barruan edo beste administrazio publiko batzuen artean datuak transmititzeari aurka egiteko atala.

c) Hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpena, non aitortuko baita prozeduran eskatutako baldintzak betetzen direla eta ezarritako denbora-tartean mantenduko direla, eta hitzemango baita Administrazioak eskatzen dituen egiaztagiriak eta dokumentuak aurkeztuko direla.

d) Datu pertsonalak babesteari buruzko legeetan ezarrita dauden eskubide eta bermeak gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren erreferentziak.

Nolanahi ere, Euskadiko datuak babesteko ordezkariaren jarraibideak beteko dira, eredu normalizatuetan sartu behar diren tratamendu-jardueren informazio-klausulei dagokienez.

19. 60. artikuluari bi apartatu gehitzen zaizkio –artikulu hori eredu elektroniko normalizatuari buruzkoa da–, eta honela geratzen dira idatzita:

8. Formularioekin batera, haiek betetzeko jarraibideak emango dira, formularioak konplexuak direla-eta hala egitea komeni denean; jarraibideetan azalduko da zer urrats egin behar diren Administrazioa bidali beharreko dokumentazioa elektronikoki sinatzeko eta erregistratzeko, eta zer esteka balia daitezkeen sistemetako gorabehera teknikoak konpontzeko.

9. Formulario elektronikoak nolakoak diren eta haiek betetzeko zer datu behar diren kontuan hartuta posible bada, formularioak diseinatzerakoan aintzat hartuko da

normas aplicables no dispongan la obligatoriedad del canal electrónico, y la aportación de los datos de aviso de notificación o comunicación y los campos necesarios para hacer efectivas la comunicaciones y notificaciones electrónicas

b) La posible oposición a la transmisión de datos entre la misma o distinta Administración Pública.

c) Declaración responsable, en su caso, sobre la concurrencia de los requisitos exigidos en el procedimiento, su mantenimiento mientras sea exigido, así como el compromiso de aportar los justificantes y documentos que sean requeridos por la Administración.

d) Las referencias oportunas para poder hacer efectivos los derechos y garantías establecidos en las leyes sobre protección de datos de carácter personal.

En cualquier caso, se seguirán las directrices de la persona delegada de Protección de Datos de Euskadi en relación con las cláusulas informativas de las actividades de tratamiento que deben incluirse en los modelos normalizados.

19. Se añaden dos nuevos apartados en el artículo 60 sobre modelos electrónicos normalizados, con el siguiente literal:

8. Los formularios irán acompañados, siempre que su complejidad así lo exija, de las instrucciones necesarias para su correcta cumplimentación y deberán contener una descripción de los pasos necesarios para la firma electrónica y registro de la documentación remitida a la Administración, así como enlaces para posibles incidencias técnicas de los sistemas.

9. Cuando resulte posible, por su naturaleza y por los datos necesarios para su cumplimentación, los formularios electrónicos serán diseñados teniendo en

jarduketa bat baino gehiago aldi berean egiteko aukera, zuzeneko lotura duten zerbitzuak batera izapidetu ahal izateko.

cuenta la realización simultánea de varias actuaciones con el fin de facilitar la tramitación unificada de servicios directamente relacionados.

20. 79. artikulua 2. apartatua aldatzen da –artikulu hori ordezkartzarako gaikuntzari buruzkoa da–, eta honela geratzen da idatzita:

20. Se modifica el apartado 2 del artículo 79 sobre la **habilitación para la representación**, que queda redactado de la forma siguiente:

Gaikuntza hori herritarrei arreta emateko eskumena duen administrazio-organoaren titularrak emandako ebazpenaren bidez egongo da.

Dicha habilitación se realizará mediante resolución dictada por la persona titular del órgano administrativo competente en atención a la ciudadanía.

21. 115. artikulua aldatzen da –artikulu hori administrazio elektronikoaren behatokiari buruzkoa da–, eta honela geratzen da idatzita:

21. Se modifica el artículo 115 sobre el **Observatorio de Administración electrónica**, que queda redactado de la forma siguiente:

1. Administrazio elektronikoaren arloko organo eskudunak, atxikita dagoen saileko estatistika-organoarekin koordinatuta, administrazio elektronikoaren behatokiaren eginkizunak beteko ditu, eta haren ardura izango da aldi-aldi aztertzea zein den administrazio elektronikoaren hedatze-maila eta erabiltzaileek zerbitzu elektronikoekiko duten gogobetetze-maila, bai eta horri guztiari jarraipena egitea ere; azken batean, helburua da hobetzeko ekimen orokorrak proposatzea eta herritarrei zerbitzu-prestazioaren kalitateari buruzko informazio osoa ematea.

1. El órgano competente en Administración electrónica, en coordinación con el órgano estadístico del departamento al que esté adscrito, realizará las funciones de Observatorio de Administración Electrónica como responsable del análisis periódico y seguimiento del grado de despliegue de la administración electrónica y la demanda y grado de satisfacción de las personas usuarias de los servicios electrónicos, con el fin de proponer iniciativas generales de mejora y facilitar a la ciudadanía información global sobre la calidad en la prestación de los servicios.

Herritarrek gehien eskatzen dituzten zerbitzu publikoak edo unean-unean gizartearentzat garrantzi handiena dutenak aztertuko dira, ahal dela.

Los servicios públicos objeto de análisis serán preferentemente los de mayor demanda de la ciudadanía o relevancia social en cada momento.

2. Behatokiak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio elektronikoaren egoeraren jarraipena eta zabalkundea egingo ditu, eta horretarako:

2. El Observatorio realizará el seguimiento y difusión de la situación de la Administración electrónica en la Comunidad Autónoma de Euskadi mediante:

a) Alderdi hauen gaineko adierazleak aztertu, laburtu eta argitaratuko ditu: administrazio elektronikoarenak; informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileraren zabalkundearenak,

a) El análisis, síntesis y publicación de indicadores de Administración electrónica, del despliegue del uso de las tecnologías de la información y comunicación, de calidad de los servicios

eta, oro har, zerbitzu publikoen eta, bereziki, administrazioa sinplifikatzeko zerbitzuen kalitatearenak, kontuan hartuz Administrazio digitalaren zerbitzu komunak agintekoadroen eta sistemen eremu administratiboak. Helburua izango da benetako eta une oro eguneratutako informazioa ematea, kontrola eta jarraipena ahalbidetzea eta plangintza eta ebaluazioa datuetan oinarrituta gauzatzea.

Adierazleek lau ikuspegi erakutsiko dituzte: hilekoa, hileko bilakaerarena, urtekoa eta urteko bilakaerarena.

b) Aldian-aldian aztertuko du herritarrek zer zerbitzu publiko eskatzen dituzten eta haiekiko zer pertzepzio duten.

c) Aldian behin azterlanak eta txostenak egin eta argitaratuko ditu, administrazio elektronikoaren garapen-maila ebaluatzeko, eremu administratiboak kontuan hartuta. Azterlan eta txosten horiek EAEko sektore publikoko entitateen atari korporatiboetan argitaratuko dira.

d) Bitarteko elektronikoaren erabilera administrazio-jardunean duen eragina ebaluatuko du, bitarteko elektronikoaren bidez izapidetzen diren informazio-sistemen eta administrazio-prozeduren barne-auditoretzak eginez.

e) Beste entitate batzuekin lankidetzan arituko da gai horiei buruz.

3. Behatokiak zerbitzu publikoen kalitateari buruzko tresnei esker lortzen diren datuak erabiliko ditu. Hala ere, neurketaren helburua eta xedea zein diren, beste datu espezifikokoago batzuk erabili ahal izango ditu; horretarako, jarduketako-protokoloak ezarriko dira zerbitzuak ematen dituzten organo eta organismoekin.

4. Behatokia izango da Estatuko Administrazio Orokorrarekiko eta, hala badagokio, Europako organismoekin zuzeneko solaskidea, lege honen xede diren

públicos en general y de simplificación administrativa en particular, considerando los diferentes ámbitos administrativos a partir de los sistemas y cuadros de mando de los servicios comunes de la Administración digital. El objeto será proporcionar información real y permanentemente actualizada, posibilitar su control y seguimiento y la planificación y evaluación basadas en datos.

Estos indicadores se ofrecerán con cuatro visiones: mensual, mensual evolutivo, anual y anual evolutivo.

b) Análisis periódico de la demanda y percepción de la ciudadanía sobre los servicios públicos.

c) La realización y publicación de estudios e informes periódicos que evalúen el grado de desarrollo de la Administración electrónica considerando los diferentes ámbitos administrativos. Dichos estudios e informes se publicarán en los portales corporativos de las entidades del sector público vasco.

d) La evaluación del impacto del uso de los medios electrónicos en la actuación administrativa, realizando auditorías internas de los sistemas de información y de los procedimientos administrativos que se tramitan por medios electrónicos.

e) La colaboración con otras entidades sobre dichas materias.

3. El Observatorio utilizará los datos procedentes de los instrumentos sobre calidad de los servicios públicos. No obstante, debido al objetivo y fin de la medición, podrá disponer de otros datos de mayor especificidad; a tales efectos, se establecerán protocolos de actuación con los órganos y organismos prestadores de los servicios.

4. El Observatorio será el interlocutor directo con la Administración General del Estado y, en su caso, con los organismos europeos para la remisión de los datos e información oficial de la Comunidad

gaiei buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko datuak eta informazio ofiziala bidaltzeko.

Autónoma de Euskadi en las materias objeto de la presente Ley.

5. Foru-organismoak eta EAEko gainerako sektore publikoa lankidetzan arituko dira behatokiarekin, eta helburuak betetzeko behar duen informazioa emango diote.

5. Los órganos forales y resto del sector público vasco colaborarán con el Observatorio suministrando la información que se requiera para los objetivos de este.

Azken xedapenetako bosgarrena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretua aldatzea.

Disposición final quinta. Modificación del Decreto 217/2008, 23 de diciembre, del Boletín Oficial del País Vasco

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 13.2 artikulua ezabatzen da.

Se suprime el artículo 13.2. del Decreto 217/2008, de 23 de diciembre, del Boletín Oficial del País Vasco.

Azken xedapenetako seigarrena. Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala arautzen duen otsailaren 29ko 38/2000 Dekretua aldatzea.

Disposición final sexta. Modificación del Decreto 38/2000, de 29 de febrero, por el que se regula el Servicio Oficial de Traductores

Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala arautzen duen otsailaren 29ko 38/2000 Dekretua aldatzen da, honela:

Se modifica el Decreto 38/2000, de 29 de febrero, por el que se regula el Servicio Oficial de Traductores, en los siguientes términos:

Ezabatu egiten da 4.1 artikulua c) letraren hirugarren paragrafoa, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen duen apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuaren bidez txertatu baitzen.

Se suprime el párrafo tercero del apartado c) del artículo 4.1, introducido por el Decreto 48/2012, de 3 de abril, por el que se determina la centralización de los servicios transversales de traducción de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

Azken xedapenetako zazpigarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen duen apirilaren 3ko 48/2012 Dekretua aldatzea.

Disposición final séptima. Modificación del Decreto 48/2012, de 3 de abril, por el que se determina la centralización de los servicios transversales de traducción de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen duen apirilaren 3ko 48/2012 Dekretua aldatzen da, honela:

Se modifica el Decreto 48/2012, de 3 de abril, por el que se determina la centralización de los servicios transversales de traducción de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos, en los siguientes términos:

1. Honela geratzen da idatzita 4.2 artikulua b) letra:

b) Ditutzen beharrak Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialera bideratzea, egin beharreko itzulpenak egiteko.

2. 4.2. artikulua d) letra kentzen da.

Azken xedapenetako zortzigarrena. Erregelamendu bidezko garapena.

Ahalmena ematen zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari eta sailtako titularrei, bakoitzak bere eskumen-eremuan, lege hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. Legea indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

1. El apartado b) del artículo 4.2 quedará redactado como sigue:

b) Dirigir las necesidades que observen al Servicio Oficial de Traductores del Instituto Vasco de Administración Pública, para la materialización de las traducciones que se requieran.

2. Se suprime el apartado d) del artículo 4.2.

Disposición final octava. Desarrollo reglamentario.

Se faculta a la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi y a las personas titulares de los Departamentos en sus respectivos ámbitos de competencias para dictar cuantas disposiciones fueran necesarias para el desarrollo y ejecución de esta ley.

Disposición final novena. Entrada en vigor de la Ley.

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.